


Berrigara



Gertu

Astelehenean udako
denboraldiari hasiera
igerilekuetan



**MECA
BERGARA**

Amillaga 5
BERGARA
T. 943 76 40 68




Handi edo txiki,
ideia onak dira irauten dutenak.



Zuk nahi duzun **BERGARA**



Kontxi Irizar



Victoriano Gallastegi



Koldo Pereira



Juan Jose Arrieta
(Indep.)



Jose Antonio
Etxebarria



Nere Amaia Zabala



Iñigo Alberdi
(Indep.)



Felipe Altuna
(Indep.)



Xabier Zabaleta



Juan Garitano



Amaierarik gabeko gerra baten azken atala?

Iñazio Arregi / Aranzadi ikastolako zuzendaria

Ezer idazten hasi aurretik aitortu behar dut sekula ez dudala ulertu izan Balkanetako herrialde eta nazionalitateekin gertatu izan dena. Hirurogeiko hamarkadako Jugoslaviatik gaur egungo egoerara eman den bila-kaera, etnia, erlijio, hizkuntza eta kon-daira kontrajarrian, eta dirudienez, es-talirik egon den gorroto nabarmen ba-tean oinarritzen omen da.

Asko aldatu dira gauzak europear gautxisten eredu eta aztergai teoriko izan zen Titoren sasoiko Jugoslavia hartatik gaurkora. Herri eta hizkuntza desberdinen mosaiko paregabea, ekono-mia mixtoaren eredu miragarria, tu-rismo erakarlea; kohesioa, elkarbizitza, tolerantzia bezalako baloreak saltzen zituen lurralde hura, gerra, gorroto, de-segite eta nagusikeriaren amildegitik abiatu da azken urteotan.

Herri eta nazionalitateen askatasun egarria, eta nahi hauek "Serbia Handia-ren" izenean kupida gabe zapuztu be-harra izan dira gerra eta gatazka guz-tien eragile.

Mendebaldeko herriek eta bertako militarrek, inguru hauetan, beste ba-

tzuetan ez bezala, esku hartzeko ohitu-rra eurenganatu dute. Kosovon NATOK egindako joko salagarria azken adibi-dea dugu. Inoren baimenik gabe bere magalpean ez dagoen herri bat siste-matikoki bonbardatu dute, ezkertiar nahiz eskuindar politiko gehienen eta medio guztien txalo artean.

Puntu honetara iritsita, prozesu hon-etan guztian ditudan zalantzak datoz-kit gogora. Izan ditzakeen ondorioak neurtu gabe, justifika al daiteke honela-

"Zilegi al da NATOren edo Clintonen eskutan uztea munduko egitura soziopolitiko berria arautzeko agindua? Demokrazia eta askatasunak sendotzeko irizpide berdinak erabiltzen ari al dira gatazka guztietan?"

ko ekintza bat? Ehundaka hildako, mi-laka deserriatu, norik daki zenbat mi-lioitako galerak..., derrigorrezkoak al ziren Kosovon autonomia bermatzeko? Zilegi al da NATOren edo Clintonen es-kutan uztea munduko egitura soziopo-litiko berria bultzatzeko eta arautzeko agindua? Demokrazia eta askatasunak sendotzeko irizpide berdinak erabil-tzen ari al dira gatazka guztietan?

Ez naiz arituko Milosevic-i aurpegia zuritzen bere izaeraren berri aspalditik dugulako. Gatazka honentzat beste ir-tenbiderik eskatzen badidazue, ez du-dala ezagutzen onartu beharko dut, baina NATOren jarrera eta jokaerei era-bat salagarriak eta arbuigarriak deriz-kiet, nahiz eta etnia baten edo etnia ho-rren autonomiaren aldeko borroka ba-tean aritu den, ondorio edo lorpenen eta erabilitako bitartekoen artean des-proporzionaltasun ikaragarria dagoela-ko. Askotan helburu justoenak ere ez du edozein bitarteko erabiltzea justifi-katzen, eta nire iritziz bederen, hau ho-rietako bat da. Hori guztia, kontuan izan gabe hau ez dela izango ziurrenik gerra baten azken atala. **B**

■ barruan



Mainer Sedano

Gazteen informaziorako bulegoa

"Bulegoaren zeregin nagusia informazioa jaso eta gazteei eskaintzea da"

8.



Aintzane Narbaez

Gimnasta

"Entrenamenduetan jardutea dieta zaintzea baino gogorragoa da"

21.



Mari Karmen Otaño

Ariznoa hotelekoa

"Hotelian gauzarik inportantiena klientia gustora egotia da, bera etxeko sentitzia"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1828. Ekainaren 12tik 14ra, Fernando VII.a Bergaran izan zen. Zaragozatik Gaztelara egindako bidaian, Bergarako Moya etxean hartu zuen ostatu. Herri eta eliz agintariek ongi etorria eman eta agur egin zieten berari eta bere emazteari, herriko kanpai guztiak joz, San Pedron meza nagusia prestatuz e.a.

1873. Ekainaren 9an Koldo Eleizalde jaio zen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1911. Ekainaren 10ean ELA sindikatua sortu zen Bilbon.

1937. Ekainaren 12an Bilboko "burdinazko harresia" apurtu zuten tropa frankistek.

1977. Ekainaren 8an Deia egunkaria azaldu zen.

MUNDUAN GERTATUA

1862. Ekainaren 9an EEBBko senatuak esklabutza aboli-zioaren alde bozkatu zuen.

1990. Ekainaren 9an Monica Selesek Roland Garros irabazi zuen, 16 urte zituela.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzita 4

4-5-21-29-35-45 (osag.46/itz.4)

Astelehena 7

13-16-25-40-42-43 (osag.10/itz.3)

Martitzena 8

1-24-28-38-48-49 (osag.44/itz.1)

Eguaztena 9

12-20-40-42-43-47 (osag.39/itz.8)

PRIMITIVA

Zapatua 5

2-7-30-32-45-46 (osag.48/itz.8)

Domeka 6 Saritzarra

8-9-18-21-29-32 (osag.41/itz.1)

ONCE

Eguakitzita 4: 26.844 (040 seriea)


Astelehena 7: 33.174

Martitzena 8: 16.052

Eguaztena 9: 13.796





Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zeruan hodei batzuk agertuko bazaizkigu ere, urdinguneak nagusituko zaizkigu astebukeraren. Hala ere, domekan estaliago izango da zerua baina tenperaturak zertxobait gora egingo du. Haizeak iparretik joko du asteburuan zehar.

Ilargiaren aldiak

-  Ilbehera: ekainak 7
-  Ilberri: ekainak 13
-  Ilgora: ekainak 20
-  Ilbete: ekainak 28

Eguzkia

Domeka, ekainak 13



Sortu: 06:46



Gorde: 21:48

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 3	21	12	-
Eguakitzita 4	24	10	-
Zapatua 5	20	15	1,9
Domeka 6	19	10	-
Astelehena 7	16	10	-
Martitzena 8	20	11	-
Eguaztena 9	21	6	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Asero

Nasai. Erropei eta zapatei buruz.

Antzinan ohitura zen zapatak, arropak eta abar asero xamarrak eroste, luzaroan baliagarri izan zitezten.

- Zapata asero xamarrak erosi mutikuei, azten dare ta.

-Prakak oso asero dauzkat.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Panpina, jabearen irudi eta antzera

Estatu Batuetako jostailu konpainia ezagun bat jabeak bezalako aurpegidun panpinak egiteko aukera eskaintzen hasi da. Panpinaren jabe izango den hauraren argazki bat bidali eta enpresa-koek begietarako 24 koloreren, ilarako 6ren eta azalerako 3ren artean egiten dute aukera. Aurpegiaren itxura ere ahalik eta antz handienekoa izan dadin, forma-sorta handia eskaintzen dute.

Farmaziak

Eguakitzita 11:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Zapatua 12:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Domeka 13:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Astelehena 14:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Martitzena 15:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguaztena 16:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguena 17:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Ogia

Domeka 13: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuaren Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Andoni Lasa
Ekainaren 11n
5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Markel.



Felix Alzelai
Ekainaren 12an
38 urte. Urte askotarako!
Familiakoak, Oihana eta Amaia.



Ane Mujika
Ekainaren 16an
7 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Oier Elorza
Ekainaren 15ean
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Ane Vicente
Ekainaren 11n
6 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Joseba.



Izar Urteaga
Ekainaren 16an
31 urte. Urte askotarako!
Botitxelikoak.



Jone Rodriguez
Ekainaren 14an
9 urte. Urte askotarako!
Gurasoak eta Alazne.



Agustin Toledo
Ekainaren 14an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Lagunak.



Roberto Zurro
Ekainaren 11n
35 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Borja Lopez
Ekainaren 15ean
8 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta Uxu.



Mikel Mujika
Ekainaren 11n
10 urte. Urte askotarako!
Gurasoak eta Jon.



Eva Conget
Ekainaren 17an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Aitzol eta Endika.



Mikel Fernandez
Ekainaren 11n
5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Irizar
Ekainaren 14an
3 urte. Urte askotarako!
Aiton-amonak eta izebak.



Mireia Castells
Ekainaren 17an
10 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta, bereziki, Lorena.



Markel Castells
Ekainaren 15ean
6 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta, bereziki, Lorena.



Marijo Frago
Ekainaren 17an
32 urte. Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpak.



Olaia Sanchez
Ekainaren 17an
urtebete. Urte askotarako!
Gurasoak eta Julen.



Maria Carmen Munnilla
13an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Xabier Azkarate
Ekainaren 14an
39 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitziber Barrenetxea
14an 15 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta Arkaitz.



Ruben Montero
Ekainaren 17an
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Arregi
Ekainaren 13an
5 urte. Urte askotarako!
Barrenkalekoak eta Amaia.



Nerea San Miguel
Ekainaren 14an
9 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.

hildakoak

BERGARA

Jose Zeziaga Zubiate
Ekainak 6, 74 urte
Maria Asuncion Ajuria Larraza
Ekainak 7, 66 urte
Dorleta Agirre Izurategi
Ekainak 8, 35 urte
Cristina Rico Gonzalez
Ekainak 8, 67 urte
Angela Arroyo Sancho
Ekainak 9, 89 urte

ANTZUOLA

Francisca Zubillaga Leunda
Ekainak 1, 84 urte
Isabel Fernandez de Jauregi Lopez de Audikana
Ekainak 2, 85 urte

jaiotakoak

BERGARA

Aitziber Arrieta Inza
Maiatzak 28
Ibon Gomez Arizmendi
Ekainak 2

ANTZUOLA

Aiert Kerexeta Arratibel
Maiatzak 29
Zumaia Elkoro Igarza
Maiatzak 30

mezak

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.
Ubera
Domekak: 10:30.
San Juan
Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.
San Prudentzio
Domekak: 10:30.
Labegariaeta
Domekak: 11:00.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 10:30.
Eguakitza: 19:00.

Monja Zaharrak

Domekak: 19:30.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpurualde

Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Mariaren Lagundia

Domekak: 10:00.
Zapatuak eta lanegunak: 09:00.

Antzuola

Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domeka: 10:00.

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.
Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.
Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.
Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.
Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 06:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.
Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

Datorren asteko alean
EKAINAREN 18a eta 24a
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko dira.

ANTZERKIA

► **Kiki, Koko, Moko eta Flax** pailazoak domekan, hilak 13, 12:00etan Seminarioan. Aranzadi Ikastolako jaia.

► **Yllana taldearen "666"** antzezlanaren 18an, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Mago de Oz eta Leviatan** taldeak gaur, eguakitzan, 22:00etan Jam-en. Bestalde, bihar zaturako iragarrita zegoen **Wasp**-en emanaldia ekainaren 26an izango da.

► **Musika Eskolako ikasle- en kurtsu amaierako kontzertua** Zabalotegin egunean, hilak 17, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

► **Javier Garcaren margo erakusketa** Kultur Etxean, domekara arte.

► **Azurren argazkiak**, oleoak eta eskulanak Nahikarln.

► **Riki Azkargortaren mar- goak** Bilboko Berta Belaza galerian (Arruskibar plaza, 5), ekainaren 25era arte.

► **Xabier De Zerrioren eskulturak** Logroñoiko Ibercaja arte aretoan (San Anton, 3), ekainaren 20ra arte.

MUSIKA

Udaberriko kontzertua

Non: Udal pilotalekuan
Noiz: domekan 12:30etan
Sarrera: 500 pezeta

Musika Eskolako ikasleek Udaberriko Kontzertua eskeiniko dute domekan Frontoian. Aurtengoa 11. edizioa izango da. Aurrekoetan bezala, helburua Musika Eskolako ikasleek urtean zehar eginiko lana jendeaurrean erakustea da. Guztira, 150 bat ikaslek hartuko dute parte jaialdian. Kontzertuaren aurretik, 10:30etan, Gazteen Bandarekin kalejira izango da.

Programari dagokionez, iazko edizioan aurkeztu zen Musika Eskolako Orkestak honako pieza hauek joko ditu Maite Aurrekoetxea bilbotarraren batutapean: Mozarten "Eine kleine nachtmusik" izenburuko serenata eta rondoia eta Beach Boys 1960ko hamarkadan Californian ezagutzera eman zen taldearen selekzio bat. Jarraian, Akordeoi Orkestak, Haurren abesbatzak eta Koral taldeak Handel konpositorearen "Sense" ope-

rako "Ombra mai fu" pieza eskainiko dute, Maria Jesus Ugalde eta Kristina Larrañagaren esanetara. Ondoren, Ugaldek berak zuzendutako Akordeoi Orkestak "Home on the range" (Walter Maurer) eta "Paris" (Mornet konpositorearena) interpretatuko ditu eta Gazteen Bandak, Alberto Laskurainen gidaritzapean, "Songs and dances" (Purcell) eta "5. sinfonia (finale)" (Beethoven). Kontzertua amaitzeko, partaide guztiak Lionel Bart-en "Oliver!" musikalaren selekzio bat eskainiko dute. Kontzertuko aurkezlea Teresa Aranzibia izango da.

Kontzertuaren ostean Espoloian izango den herri bazkarirako txartelak Musika Eskolan eskuratu daitezke gaur, eguakitzan, 21:00ak arte eta bihar, zapatua, arratsaldean Frontoian. Domekan, bazkalostean, jaialditxo bat egingo da Espoloian.



lazio Udaberriko kontzertuko irudi bat.

LEHIAKETAK

► **Kirol argazkien IX. Lehiaketa.** Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak Udaleko Kirol Zerbitzuan jasoko dira ekainaren 23ra arte. 943 76 30 90 (Benito).

IKASTAROAK

► **Lanbide hastapena.** Eskolan jarraitu nahi ez edo ikasketak utzi dituzten gazteei zuzendutako ikastaroak: sukaldaritza, bulego zerbitzua, aroztetia, igeltseritza, mekanika

edo elektrizitatea. Eskera egiteko epea ekainaren 18ra arte zabalik. 943 77 91 65.

DEIAK

► **EH.** Gaur, eguakitzan, **mitina** San Martin plazan 19:30etan:

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

PANA DE ROKUA
JATETXEA

Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73



ARRI
Industri
Hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 670 31 92 44.

Mila Idiakez, Balentin Gabilondo eta Jesus Mari Garitano. Era berean, preso, errefuxiatu eta hauen senideei **omenaldia** eskainiko zaie.

► Futbolin txapelketa

Ollagorria tabernan, ekainaren 18an, eguakitza, 22:00etatik aurrera. Izen-ematea doan. 25.000, 10.000 eta 5.000 pezetako sariak izango dira. LAM-ek antolatzen du.

► Hitzaldi-dastaketa

Gure Ametsa elkartearen ekainaren 17an, 19:30etan: labeldun tomatea eta piparra eta Zeanurin egiten den Bertoko garagardoaren aurkezpena. Ondorengo afarirako izen-ematea (2.500 pezeta) astelehenera arte zabalik.

► San Martzial.

Ekainaren 20rako apurtutako mahaiak konpondu beharko dira. Ordurako konpondu ez direnak kendu egingo dira. Bestalde, uztailaren 4an taberna eta txozna hartzeko interesa duten taldeek ekainaren 23ra arte aurkez ditzakete eskaerak Udaletxean, 13:30ak arte.

► Mendi bizikleta irteera

domekan, hilak 13, 8:30etan Beheko Estazioetik. Ibilbidea: Bergara, Besaide, Atxarte, Urkiola, Anbotoste, Arrasate eta Bergara.

► Zapelaitz Motozale Taldearen egun guztiko irteera

domekan, Laguna Negrara eta Sorriara. Irteera 9:30etan Zapelaitzetik egingo

da. Depositoa beteta eramatea eskatzen da.

► Aranzadi Ikastola.

Gurasoei zuzendutako jaialdia eguakitzean, hilak 18, 18:30etan Novedadesen.

► Araba Euskaraz hilaren

20an La Pueblan. Autobus txartelak Jardunen edo Aranzadi Ikastolan. Irteera 8:00etan Beheko Estazioetik.

► Bedelkarrek Veneziara bi pertsonarendako bidaia

zozketatuko du ekainaren 26an. Dagoeneko Bedelkarreko dendetan erosketak egiteagatik boletoak banatzen dira.

► Eskola txikien festa

domekan, hilak 13, Alkiza, goizeko 10:30etatik aurrera.

JAIK

► San Antonioko jaiak.

Gaur, eguakitza, La Parranda taldea, 23:00etan. Zapatuan, hilak 12, mus txapelketa 16:00etan, 17:00etan buruhandiak, zezen txikiak eta poniak eta jarraian txokolatada. Gauean, 21:00etan tanborrada, eta 12etan Geiser Orkestaren emanaldia. Tarteka Los Mellizos del Norte umoristen saioa eta goizeko 4retan txokolatada. Domekan, San Antonio egunean, 10:00etan meza, ondoren Jubilatuetako abesbatzaren saioa eta bukatzeko jubilatuentzako luntxa banatuko da San Antonioko Gure Ametsa elkartearen.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Aun se lo que hicisteis...

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema

Cookie's fortune

Eguakitza: 22:00.

El guru

Zapatua eta domeka: 17:00.

Ejecucion inminente

Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Ejecucion inminente

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Iluminata

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

La vida es bella

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Amor de hombre

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Bazartxo

La novia de Chucky

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.

El guru

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

La vida es bella

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

AUN SE LO QUE HICISTEIS EL ULTIMO VERANO

Zuzendaria: Danny Cannon.

Aktoreak: Jennifer Love, Brandy, Freddie Prinze, Mekhi Phifer.

Aurreko zatiaren arrakastaren ondoren, hona hemen beldurrezko filme honen bigarren zatia. *Juliek* (Jennifer Love Hewitt) bere jaioterria utzi du baina iraganean bizi izandakoak ezin izango ditu nolahi ahaztu. Azken udako hiletan urteurrenean, berriz ere arrantzalearen irudia ikusiko du. *Karla* (Brandy) bere lagunminak Las Bahamasen oporraldia igarotzeko saria irabazi eta biak beste bi lagunekin joango dira. Baina ez dira opor lasaiak izango...



EJECUCION INMINENTE

Zuzendaria: Clint Eastwood.

Aktoreak: Clint Eastwood, Isaiah Washington, Lisa Gay Hamilton.

Clint Eastwood aktoreak (*Los puentes de Madison*) kamara atzean ere bere maisutasuna azaldu du behin eta berriz. Oraingo honetan, heriotz zigorra jaso duen hiltzaile baten eta kazetari baten arteko erlazioa kontatzen digu.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.

Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaundi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!
Zatoz eta informa zaitetz!

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

**Joan zen astetik mar-txan dago Kultur Etxean Gazteen Informaziorako bulegoa. Aipatutako zer-bitzua 15 urtetik 29 urte-
ra bitarteko gazteei zu-
zenduta dago. Bekak, bi-
daiak, ikasketak edota
lan eskaintzei buruzko
informazioa emango da
bertan. Pedagogian li-
zentziazatutako Maider
Sedano urretxuarra
izango da bulegoan la-
nean.**

MAIDER SEDANO

Gazteen informaziorako bulegoak

*“Bulegoaren zeregin
nagusia informazioa
jaso eta gazteei
eskaintzea izango da”*

G. Zeintzuk dira zerbitzu honen helburu nagusiak?

E. Gazteen kolektiboa-
rentzat interesgarria suerta-
tu daitekeen informazioa
eskaintzea, herri mailakoa
zein beste herri batzuetatik
helduko zaiguna. Bulegoa
Diputazioko kultura departa-
mentuaren eta Bergarako
Udalaren arteko kolabora-
zioari esker jarri da martxan
eta gure probintziako beste
hainbat herritan ere badira
horrelako zerbitzuak. Sare
baten bitartez konektaturik
daude bulego guztiak eta
horrek elkarren berri izate-
ko aukera ematen digu. He-
rri mailan ere dagoeneko
herriko ikastetxeetara edo
kultur elkarteetara jo dugu
gure zereginaren berri emate-
ko eta Udaleko departa-
mentu ezberdinekin ere ha-
rremanetan izango gara,
gazteei ahalik eta informa-
zio zabalena eskaini ahal
izateko.

G. Zein eratako informa-
zioa eskainiko da?

E. Gazteen inguruko in-
formazioa; ikastaroak, be-
kak, bidaiak, lan eskaintzak
eta horrelakoak nagusiki.
Kultur Etxeko sarreran pa-
nel bat jarri dugu jadanik in-
formazio ezberdina emate-
ko. Kolore horiko orrietan
udal mailako eskaintzak ja-
so ditugu, kolore urdineko-
etan bekak, ekintzak orrial-



Maider Sedano pedagogian lizentziazatua da.

de zurietan joango dira,
ikastaroak larrosa koloreko
orrialdeetan eta berdean,
berriz, sariak eta deitutako
lehiaketak. Panela momen-
tuz Kultur Etxean bakarrik
jarri badugu ere, asmoa ba-
dago informazio hori herri-
ko beste lekuren batean za-
baltzeko.

Bestalde, Eures sarearen
bitartez atzerrian lana topa-

**“Batzuetan gazte
askok ez dakite
nora jo informazio
eske. Honelako
bulegoak
bideak errazteko
baliogarriak
izaten dira”**

tzeko aukera izango da,
prentsan azaldutako lan es-
kaintza guztiak bilduko di-
tugu astero, Estatu mailan
deitutako oposaketak... Bu-
legoak informazioa jaso eta
gazteengana eramateko hel-
burua dauka. Kasu gehienu-
tan bulegoaren zeregina bi-
tartekari lana egitea da, jen-
deari hasierako informazioa
eman gero beraiek komeni
zaien lekuekin harreman-
tan jar daitezten. Masterrak,
unibertsitatei buruzko in-
formazioa edo objezioaren
gaiarekin, adibidez, intere-
satuei zer nolako tramiteak
egin behar dituzten azaldu-
ko diegu.

G. Horrelako bulego ba-
tean egonda zaude aurretik
lanean...

E. Ibaetako Campuseko
bulegoan izan nintzen sei
hilabetez lanean eta bene-
tan esperientzia polita izan
da. Jendeak asko eskertzen
du horrelako zerbitzu bat
ematea, batzuetan ez dakie-
lako nora jo informazio es-
ke. Gazte asko galduta be-
zala sentitzen dira selektibi-
tatea amaitu ostean edo lan
bila hasi behar direnean eta
hasierako informazioa fun-
tsezkoa izaten da askotan.
Honelako bulegoak bideak
errazteko baliogarriak dira.

G. Zein izango da bule-
goaren ordutegia?

E. Ostegun eta ostirale-
tan 16:00etatik 20:00etara
eta zapatuetan 9.30etatik
13.30etara. Uztailaren 14tik
aurrera, berriaz, asteazken,
ostegun eta ostiraletan
9:30etatik 13:30etara irekiko
dugu. Abuztuko erdiko bi
asteetan itxita izango da. In-
teresatuek 943 77 91 57 tele-
fono zenbakira deitu deza-
kete aipatutako ordutegian
eta gure helbide elektroni-
koa, berriaz, honako hau da:
gzerbitzua@euskalnet.net.
Informazioa emateko duten
akademiak eta bestelakoak
bertara zuzendu daitezke. **B**

Gazte Lokalaren proiektuari sarrera eman diote eguaztenean udaletxean

Herriko 400 gazteri egindako inkestaren emaitzak plazaratu dituzte

Gazteek autogestionatutako gunearen aldeko proiektuari sarrera eman zioten udaletxean joan zen eguaztenean, Gazte Lokalaren aldeko proiektuaren bultzatzaileek. Era berean, gai honen inguruan herriko gazteei egindako inkestaren ondorioak eman zituzten ezagutzera Udaletxe aurrean emandako prentsaurrekoan.



Gazte Lokalaren aldekoek eguaztenean emandako prentsaurrekoa.

Gazte Lokalaren aldeko bultzatzaileek hainbat ekitaldi antolatu zituzten maiatzaren lehenaren inguruan. Ekitaldiok gazteen artean jasotako erantzunak (herri bazkariak 300 bat lagun bildu zituen) proiektuarekin aurrera egiteko indarrak eman dizkiela esan zuten bultzatzaileek. Gazte Lokalaren inguruan, herriko 23 talde biltzen direla eta proiektuari atxekimendua agertzeko, 1.125 bergararren sinadurak jaso dituztela esan zuten.

Bestalde, aurtengo otsailan eta martxoan zehar gaiaren inguruko galdeketa egin zieten 16 eta 30 urte arteko herriko 400 gazteri.

Eguaztenean inkesta horren ondorioak plazaratu zituzten.

Herriko gazteei egindako galdeketatik, lau ondorio nagusi atera dituzte Gazte Lokalaren aldekoek. Lehenengoa, herriko gazteek (%91) aspertzeko astia dutela gaur egun eta, denbora hori jardueraz osatzeko gogo badutela (%92). "Honek Gazte Lokalaren proiektuaren balia garritasuna erakus-

ten du, astialdia hainbat ekimen eta jardueraz osatzeko bidea zabaltzen duelako" esan zuten.

Bestalde, gazteak biltzeko toki baten premia ikusten du %89ak. Ondorioz, jarduerak ez dira antolatzen horretarako tokirik ez dagoelako eta, honek guztiak, gazteen arteko komunikaziorik eza ekartzen du Gazte Lokalaren aldekoen iritziz.

Hirugarren ondorioa da, Bergarako Udalaren ardura dela arazo honi irtenbidea ematea. Horrela pentsatzen du elkarrizketatutako gazteen %93ak. Azkenik, %88ak uste du herrian gazteentzako tokirik ez egoteak herriak bizitasuna galtzea dakarrela eta horrek atak irekitzen dizkio Gazte Lokalari, proiektuaren bultzatzaileen ustez.

ALDERDI POLITIKOEN

Hauteskundeen aurrean proiektuari buruz alderdi politikoen iritzia jakin nahi izan dutela esan zuten eguazteneko prentsaurrekoan. Proiektua azaltzeko, EH eta EArekin bildu direla esan zuten: "Eakoek euren batzar batera gonbidatu gintuzten eta gaia negoziatzeko prest azaldu ziren. EHkoek, berriz, proiektua onartzen dutela eta egokia iruzditzeko zaiela esan ziguten. Azkenik, EAJkoekin biltzeko ahaleginak egin ditugu, baina hauteskundeak direla eta, astirik ez dutela erantzun digute". Uztailaren 9rako alkatearekin biltzeko deia egin dutela aurreratu zuten. **IB**



**Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.**


BERGARA ☎ 943 76 58 86

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



Autobus geltoki berria nola geratuko den ikus daiteke fotomuntaketa honetan.

IÑAKI BERSATEGI

Autobus geltoki berriaren proiektua onartu du Udalak

Udal Gobernu Batzordeak bere oniritzia eman dio

Torrekua aurrean, errekaren ertzean, eraikiko den autobus geltoki berriaren proiektua onartu du Gobernu Batzordeak. Orain, Udalbatzak onartu eta tramite administratiboak betetzea falta da lanak adjudikatu eta obrak hasteko. Autobus geltoki berriaren proiektua Iñaki Bersategik egin du eta aurrekontua, BEZ barne, 101.833.236 pezetakoa da. Eraikitzeko lanak noiz hasiko diren jakiterik ez dago,

baina seguruen udazkenean hasiko dituzte eta sei bat hilabete beharko dira obrak amaitzeko. Ibargarai kalearen urbanizazioa aurrera doan heinean, beheko estazioko autobus geltoki zaharra bota egingo dute, baina aurretik berria eraikita egon beharko da.

Autobus geltoki berriak txapel handi bat izango du euriarengandik babesteko eta lau autobusendako tokia izango du. Bestalde, krista-

lezko kutxa moduko batean, itxaron gela, txartelak saltzeko takillak, taberna, komunak eta kafetegia izango dira. Era berean, egunkari eta aldizkariak saltzeko tokia izango da. Honen kanpoaldean, terraza bat izango da eta baita autoendako edo taxiendako tokia ere. Bestalde, erreka ertzarako pasabidea izango da eta geltokia eraikitzeaz bat, erreka ertzeko ibilbidea egokituko da.

Autopistaren kontrako manifestazioa

Eibar-Gasteiz autopistaren kontra daudenek eskualde mailako manifestaziorako deia egin dute zapatarako San Martin plazatik iritenda. Manifestazioa 19:30etarako iragarrita dago eta honako hauek antolatu dute: eskualdeko talde ekologistek, gazte talde eta asanbladek, Zutik-ek, HBk eta IU-EBk.

"Harbiaska" izango da Angiozarko frontoiaren izena

Angiozarko frontoia berrizteko lanak bukatzen direnerako izen berria erabakita dauka Angiozarko Bailarako Batzarrak. "Harbiaska" izena jarriko diote pilotaleku berriztuari. "Harbiaska" da frontoia dagoen lekuaren izena eta jendeak normal erabiltzen duen izena da lekuari buruz berba egiterakoan. Bestalde, frontoiko obrak abutzuko oporren aurretik amaitzea espero dute. Pilotalekua estali dute dagoeneko eta, paretak, harmailak eta aldagelak eginda daude.

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

MUJIKA
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

Gaur, eguakitza, amaitzen da, bestetan baino hauteskunde kanpaina lasaiagoa

Gaur, eguakitza, eman-go zaio amaiera hauteskunde kanpainari. EHk mitina iragarri du gaurko San Martin plazan 19:30etan. Mila Idiakez, Balentin Gabilondo eta Jesus Mari Garitano izango dira hizlari. Era berean, preso, errefuxiatu eta hauen senideei omenaldia eskainiko zaie.

HAUTESKUNDE KANPAINA LASAIA

Aurtengoa, beste batzuetakoa baino kanpaina lasaiagoa izan dela esan dezakegu. Alkategaiak etxez etxe eta kalez kale aritu dira herritarrei botoa eskatuz. Bestalde, EHk herri bazkaria, bizikleta martxa eta mendi irteera antolatu ditu besteak

beste. Gainontzeko alderdiek ez dute ekitaldi politikorik antolatu. Horrez gain, hauteskundeetako propaganda herriko hainbat puntutan jarri diren egurrezko paneletan ikusi dugu.

BOZKETEN INGURUKO BERRIGARAREN ORRIA

Astelehenean, hauteskunde buruzko informazio zehatza jasoko duen orria banatuko du Berrigararak donan. Bozketen inguruko datu guztiak jasoko dira: Udalerako, Batzar Nagusietarako eta Europarako Bergarako emaitzak, Bergarako Udalbatza berria osatuko duten zinegotzi guztien argazkiak, inguruko herrietako emaitzak e.a. Orria, egunkari eta



Astelehenean hauteskunde buruzko Bergarako datu guztiak Berrigararan.

aldizkari salmenta puntuetan, banketxe eta aurrezki-kutxetan, supermerkatuetan eta ikastetxeetan banatuko da besteak beste. Ondo in-

formatuta egon nahi baduzu, astelehen goizean eskatu ezazu hauteskunde buruz Berrigararak aterako duen orria.

Jardun Elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen joan zen astean

Jardun elkarteak batzar orokorra egin zuen joan zen egunean Kartzela Zaharrean. 1998. urtean egin dako jardueren balorazioa eta 1999rako egitasmoen azalpena eman zen taldez talde. Horrez gain, iazko batzar orokorreko akta irakurri zen eta iazko eta aurtengo diru kontuen balantzea

egin zen. Aurtengo urtefako, Jardunen aurrekontua 22.316.731 pezetakoa da; BERRIGARAFENA, 32.704.490 pezetakoa. Bestalde, zuzendaritza batzordea berrirezko lanean ari direla esan zuen Jose Angel Mikeo presidenteak. Egunotan aukeratuko dira zuzendaritza batzordea eta presidente berria.

Lazpiur S.A. enpresari eta GKN multinazionalari 50 milioiko laguntza

Bergarako Lazpiur S.A. enpresak eta GKN multinazionalak Labegarietako industrialdean lan-tegi berria elkarrekin eraikitzeko 50 milioi pezetako dirulaguntza ematea onartzekoa zen gaur arratsaldeko Plenoan.

Herrian lanpostu berriak sortzeko ekimenak bultzatzeko dirulaguntzak bana-

tzea onartu zuen iaz Bergarako Udalak eta aipatutako enpresak baldintzak betetzen dituzenez, berari eman-go zaio laguntza. Labegarietako industrialdean 3.100 metro karratuko pabilioia eraikiko dute eta hiru urtetan 55 bat lanpostu sortuko dituzte. Autoentzako gaiak egingo dituzte.

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Berrigara

371 zenbakia.
1999ko ekainaren 11.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Mariipi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Bexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrogaroko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

ATZO GOIZEKO KONTUAK

Berriro ere hauteskundeak gertatu ditugu. Berriro ere hitzak ederrago ekintzak baino. Berriro ere ohartuko gara politikoak gezurraren eta egiaren arteko esparru labangarri horretan ari direla eta, berriro ere, konpromiso orokorregiz betetarik dauden egitasmo politikoak aurkeztuko dizkigute.

Beharbada, egoera politiko berezia bizi dugula eta, hauteskunde hauei beste batzuei baino garrantzi handiagoa emango diegu. Edozein modutan, beste batzuetan ikusi ez duguna ikusiko dugu hauetan; horren adibide Donostiakoa izan daiteke. Odon Elorza alkate jarraitzearen alde sortu berria den Donostiarrak izeneko plataforma. Hamaika ikusteko jaio ginen! Dena den, gutun honen bidez Donostiako kontuen inguruan berba egitea ez da nire asmoa, Bergarako kontuen inguruan baino; beraz, murgil gaitezen honetan haria galdu baino lehen.

Gure herri eta hiri guztiak bezala, Bergarak ere aurrera jo du; hobekuntza ugari izan dugu, eta horretan datza Udal Batzarraren lana; izan ere, horretarako daude. Eta zertaz balaitzen da udala daukaguna edukitzeko? Diru jaunaz. Eta noren diruaz? Bergararren diruaz. Bada, nik esandakoa zuzena bada, izugarriko zalantzaren aurrean nago: edo Espaloitik behertantz Labegaraietarako ez da Bergara edo hango jendeak ez du zer garik ordaintzen.

Politiko jaunok, dakizuenez, iparraldeko eta hegoaldeko herrien arteko desberdintasunak lotsagarriak dira. Antza denez, zuek eskema horren jarraitzaile amorratuak zarete, eta zeregin horretan buru-belarri zaudete lanean. Ez diot ezer kendu nahi Bergara-Iparriari, primeran dagoena, baina noizko Bergara-Hegoa? Akaso barkaezinezko pekaturen bat egin al du? Ez ditut gogoratu nahi hango beharrak. Pasiara eman besterik ez dago zaharo ahazturik dagoela ikusteko. Politiko jaunok, eta berdin zait zein koloretakoak, ez iezadazue aitzakia-maitzakiarik jar "egitasmo honetan edo bestetan sartuta dago..." eta antzekoak, berandu baita horretarako, berandu, urte mordo honetan desoreka handitzen joan baita. Bertakoa naizenez, zuek baino hobeto dakit ez dagoela miraririk egiterik; auzoen kokapena ez da batere erreza, mendi eta erreka arteko estutasunean daude eta.

Egun dotore baino dotoreago dauden auzoak existitzeko arrastorik ez zegoenean, San Antonio, Zubiaurre, Ozaeta eta Labegaraie-ta bizitzaz betetarik zeuden. Auzo hauek Bergarako historian parte garrantzitsua dira; beraz, gutxienez, begirunea zor diegu, eta horren ordez zer eskaintzen diegu? Ahazmena. Badakizue, ahazmenaren zirrikiturik xehenetan ezkutatuturik. Hau ez dugu atzo goizeko kontua.

B.L.K. (NAN: 72.572.742)

HAUTESKUNDEAK 99

Datorren domekako hauteskundeak ditugu berriro gainean. Badiña zoritxarrez 8 urte EAJ (EA eta PSOEren laguntzarekin) herri honetako udaletxearen jabe dela. Zortzi urte luze eta gogor hauetan, presoan egoera larria areagotu egin da. Euskal presoek estatu frantsesean ez dute "vis a vis"ik; 22 espetxetan sakabanatuak daude, edozein momentutan biluztera behartzen dituzte, beti mehatxupean, isolamendua erabiltzen da zigortzat, etabar... edo estatu espainolean Herrera de la Mancha-kasuan, euskal presoek eta beraien senideek, zuzendaritzaren aldetik jasaten duten errepresioa. Euskal presoak, Euskal Herrian bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzeagatik, isolamendura, "patio" ordu gutxiago izatera edo bisitarik ez izatera zigortzen ditu zuzendaritzak. Dispersioa eta sakabanaketa areagotu egin dira, alegia.

AABK zure botoa EHentzat izan dadin eskatzen dugu, gure herriko presoan egoera benetan zein den jakiteko eta kaleratzeko azken 8 urte hauetan lagundu digun alderdi politiko bakarra EH (lehen HB) izan delako. Frantziako espetxeetako egoerak edo Herrikoak errepika ez daitezen, zure aukera EH izan behar da. EH izango baita euskal preso eta herriar guztion eskubideak ondoan defendatuko duena. Euskal presoak etxera. EH Udaletxera.

Amnistiaren Aldeko Batzordea

tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

Udal hauteskundietan, alkategaixak eta hautesgaixak ala siglak eta programak hartzen dittuzu kontuan?




Xabier Aduriz

Herri mailakoak direnez, pertsonak hartzen ditut kontuan. Nazio mailakoak direnean, ostera, siglak eta alderdiek aurkezten dituzten programak.



Carmen Muruamendiaraz

Nire iritziarekin bat datorrenari edo nire ideologiatik gertuen dagoenari eta zintzoenari ematen diot botoa.



Jose Antonio Zeziaga

Zerrendan doazenei ez diet hainbeste begiratzen. Botoa, indar politikoen programak kontuan hartuta aukeratzen dut.



Itxaso Lazpiur

Alderdixen programak eta zeri emoten dotsen inportantzia ikusten dot botoa aukeratzeko. Domekan ez naiz hemen izango eta korreoz emon dot botoa.



Florencio larza

Herri mailakuak dienez, zerrendetan zeintzuk doiazan begiratzen dot lehenengo, baina siglak eta programak be hartzen dittut kontuan.



Begoña Bilbao

Alkategaixa zein dan edo zerrenda zeintzuk osatzen daben begiratzen dot lehenengo eta, gero, siglak eta programak baloratzen dittut.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

PROPAGANDAKO KARTELAK ETA KARROA

Bergarako EHk mezu bat helarazi digu erre-dakziora, hauteskunde kanpainen paretetan eta Udalak baimendutako faroletan jarri dituzten propagandako kartelak, Udalak subkontratututa duen garbiketa zerbitzu-koek kendu egin dituzte-la salatzeke. EHkoek diotenez, kartelak jarri eta 24 ordutara kendu egin dituzte.

Bestalde, mitina antolatzeke Udaleko karroa (hainbat ekitaldi antolatzeke eta auzoetako jaietararako erabiltzen den karro mobila), ez lagatzea ere salatu du Bergarako EHk. Udal Gobernu Bartzordeari botatzen dio EHk, hormetatik eta faroletatik kartelak kentzearen eta karroa ez lagatzearen errua.

■ ikuspuntua: **xabier larrañaga**

Behiak, oilaskoak eta gizakiok

Alarmismoa (maiz, politikariek erabiltzen duten hitza, esplikaziorik gabe geratzen direnean) txarra izanik ere, kontua da egun bizi dugun egoera elikadura arloaren inguruan ez dela txantxetako. 1996an, Britainia Handiko behi eroen inguruko notiziek mundu osoa asaldatu zuten; hiru urte besterik ez dira pasatu eta orain Belgikatik, estatu europar eta oso garatutaz hartzen dugun herrialdetik, datorkigu berria: animaliak hazteko erabiltzen diren pentsu batzuetan dioxina aztarnak aurkitu dira. Minbizia edo kantzerra sortarazten duen produktua da dioxina; berau gantz edo



koipe industrial birberotak pentsuak prestatzeke erabiltzen direnean sortzen omen da. Dioxina hau pentsuekin nahastuta, animalien gana (hauei gertatzen zaiena, bost axola zaigu) pasatzen da eta hauengandik gure organismora. Honetaz gain, baraualdi bat egiteko gogoa etorri zait zera irakurri dudanean (France Press-ek dixit): pentsuei nahasten zaien irina, modu naturalez edo akzidentez hilik suertatzen diren zakurrak, katuak, txerriak, behiak eta oilaskoak erabiliz egiten omen da.

Orain, kontsumitzaileak lasaitzeko asmoz, alferrik esango dute minbizia sortarazteko oilasko

asko jan behar dela. Zer ez dute esango, hanka barru-barruraino sartu eta gero, jendea lasaitzeko! Begira, bestela, nola gertatu den gertakari hau: orain bost bat hilabete detektatu omen zen dioxina aztarna Verkest pentsu-enpresan eginiko ikuskapen edo inspektzio arrunt batzuetan. Zergatik ez zuten bere momentuan ezer egin gure osasuna zaindu behar omen duten erakunde ofizialek? Zergatik atzerapen hau? Noiztik ari ote dira kutsatutako pentsuok Europar barrena saltzen? Nola kontrolatu geroztik gertatutako guztia?

Bukatzeke, galdera horiei beste galdera hauek gehituko dizkiot: noraino daude benetan inplikaturak gure osasunaren kudeatzaile eta bermatzaile izan behar duten politikariak honetan guztian? Eta azkenik, ba al dakigu zer jaten dugun? Bejondeigula! **B**

■ asteko menua: **leku-berri merenderoa**, antzuola

Gazta tarta



MARIA LUISA GEZALAGA
Leku-Berri merenderoko sukaldaria

OSAGIAK (6 laguntzat)

- Litro erdi esnegain.
- Tarrina bat gazta bigun.
- Gelatina neutro sobre bat.
- 6 goilarakada azukre.
- Franbuesa mermelada.
- Katu-mihi bizkotxo gailetak.

PRESTAKETA

- Tartak egiteko bandeja zabal baten azpialdean gaileta tostatuak jarri.
- Esne eta likore apur batekin busti.
- Beste ontzi batean, esnegain eta azukrea nahastu eta arrotu.
- Ondoren, gelatina hotzarekin eta gaztarekin nahastu.
- Guztia gaileten bandejara bota eta hozkailuan hozten laga.
- Hozten eduki ostean, franbuesa tarta guztia mermeladaz estali.
- Alboetan, katu-mihi bizkotxo gailetak ipini.

■ adituen esanetan

Dioxinak

JULIO ETXEBERRIA, *albaitaria*

Dioxinak pestiziden produkzioan edo egurraren kontserbante modura erabili izan dira, baita motor olioak eta lubrikanteak ez hondatzeko ere. 1979. urtetik dioxina duten pestizidak eta herbizidak debekatuta daude. Pentsu komertzialen produkzioan produktu begetalak eta animalien grasak erabiltzen dira, grasa maila batera heltzeko. Belgikan, grasa hori ez hondatzeko dioxina sartu du Verkest enpresak eta hainbat ganadu haztegi kutsatuak izan dira. Txerrikiak eta behikiak kontrolatzea errazagoa izango bada ere, hegazti eta esnekien kasuan zailagoa izango da produkzio osoa merkatutik kentzea.

Dena den, esan behar da oso zaila dela dioxinak eraginda norbait hiltzea (horretarako urte askotan kontsumitu beharra dago). Alarma soziala piztu da eta arazo komertzialak tartean dira. Lasaistasun mezua zabaldu beharko litzateke. Belgikako dioxina kasuak ez du eraginik izango Euskal Herrian. Osakidetza lan bikaina egiten ari da kontu honetan eta jendeak inolako arazorik gabe egin ditzake erosketak. Labeldun produktuek garantia guztiak dituzte eta zertxobait gehiago ordaindu behar bada ere, jendea produktu horiek, gure baserrietan ekoiztutakoak, kontsumitzera gonbidatuko nuke. **13**

■ bergarako gordailutik

ZABALATAR DOMENJAREN HERIOTZEKO KONTUAK

Imanol Sorondo

Zabalatar Domenja 1564ko abuztuaren azken egunean hil zen eta bere etxeok ordaindutakoen diru kontua txintxo-txintxo zenbatu dute. Adierazi dezagun, alde zurretik, "beata" edo seroren eginkizunetan zeudela elizetako hilotziak zaintzea, hauen kandelak piztea, garbiketak, elizkizunetako ofrendak eta diruak jasotzea, eta abar.

Domenjaren etxeok honela ipini dituzte ordaindutakoak:

- Insaustitar Martini biderako (agian, elizbidea garbitu eta konpontzeko).....10 erreal
 - Domenja hildako egunean Unamuno serorari.....100 erreal
 - Irailaren 1ean serora berari48 erreal
 - 2 anega gari erosteko emanak (Elizako ofrendarentzat, ogiaren ordez dirudienez)24 erreal
 - Irailaren 2an serora berari50 erreal
 - Hospitalera sagardoa eramateko Gorsotegitar Pero Martinezen emazteari emandakoa (heriotzetan hospitaletako jendeetaz oroituta)8 erreal
 - Apaizentzako eta Hospitalentzako ematen ziren bi ahariengatik, jakinik bien artean 57 libra pisatu zituztela eta libarren balioa 13 marabedikoa zela. Denera 741 marabedi, hau da 22 erreal 7 marabedi gutxiago22 erreal
 - San Rokeren kofradiarentzako eta bederatzi urreneko mezentzako, esandako serorari irailaren 10ean emandakoak12 erreal
 - San Prantziskoren jantziagatik (habitoa), Maria de Jesusi (monja dirudienez) bi dukat22 erreal
- Guztira: 296 erreal. **13**



Datorren milurtekoa aztertzen

Ane Etxeberria, Eneko Iturrospe eta Aitor Lamariano,

Aranzadi Ikastolako DBH 4. mailako ikasleak ETB-1eko "Ikusgela" saioan ikusi ahal izan genituen eguakitzean. Hautazko ikasgaien artean, ikusentzuzkoak aztertzen ari direnez, aipatutako programara joateko gonbidapena jaso zuten, bertako arduradunei hainbat bideo bidali ondoren. "Ikusgela"ko azken saioetan datorren milurtekoari buruzko klabeak aztertzen izan dira eta ikasleek horren inguruko galderak egin zizkieten **Iñaki Zabaleta** EHUko Informazio Zientzien Fakultateko irakasleari (ezkerreko argazkian) eta **Martxelo Otxoa de Etxague** Iruñeko Planetarioko zuzendariari. Bergararrak primeran moldatu ziren kamara aurrean.



Opel Zafiraren aurkezpena

Joan zen eguakitzean **Opel Zafira** monobolumena aurkeztu zen **Talleres Ola** kontzesionarioan. Opelek kaleratutako modelo berriak dezenteko ikusmina piztu zuen eta herritar asko izan ziren, kotxearen ezaugarriak gertutik ezagutzeko



asmoz, bertara hurbildu zirenak. Opeleko arduradunak ere pozik ziren Zafiraren estreinuarekin eta baikor azaldu ziren merkatuan izango duen harrerari begira. Aurkezpenaren ondoren, luntxa banatu zen bildutakoen artean.

Izar gaztetxoak

Saioa Etxabarri eta Iزار Moreno gaztetxoak ETB-1eko "Izar bila" saioan azalduko dira datorren martitzenean, eguenean eta ostiralean, 19:00etan. Biak Mariaren Lagundiko abesbatzan ari dira eta horrez gain solfeoa, pianoa, txirula eta kitarra ikasten elkarrekin dabilza. Beti gustatu izan zaie abestea eta **Aitzol Mujikak** "Izar bila" saiora joateko animatu zituen. Agindutako grabazioa bidali ondoren, programara joateko gonbidapena jaso zuten eta ekainaren 2an Durangon izan ziren, **Ruth Martinezek eta Joxe Felipe Auzmendik** aurkeztutako programa grabatzen. Bikoteak bi abesti eskainiko ditu datorren asteko emaldietan, batetik Xabier Leteren "Amaren bularra" eta bestetik Euripean sua taldearen "Bihotz berriarekin mundu berrira".



UDAL EUSKALTEGIAK

OPORRETAN ERE ZABALIK



Udako ikastaroak Barnetegia

1999ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

Euskalduntze maila guztiak, alfabetatze eta EGA

Erritmoak

Egunean 5 ordu, goizez. 16 urtetik gorakoentzat.

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-13:00. Arratsaldez: 15:00-19:00

Ikastaroaren iraupena

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 7tik 18ra

BARNETEGIA

Uztailaren 1etik 15era ZERAINen.



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13

Telefonoa eta faxa: 943 76 44 53

Udal

Hauteskundeak

Bergararen alde ari gara lanean

**Andres
Diez**
Bergarako
alkategaia



kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 39 zenbakia. 1999ko ekainaren 11.

Hamaikatik bederatzi zinegotzira

Biztanle kopuruaren beherakada dela eta, bi zinegotzi gutxiago



E

kainaren 13an, domekan, egingo dira udal hauteskundeak eta Antzuolako Udalak, legintzaldi berrian bi zinegotzi gutxiago izango ditu.

Izan ere, bi mila biztanle baino gutxiago gara herrian eta horren arabera, bederatzi zinegotzi baino ezin dira egon Udaletxean. Hortaz, hamaika zinegotzi izatetik bederatzi izatera pasako da Udal taldea.


Orain dela lau urteko udal hauteskundeetan, 1995ean, 1642 antzuolarrak izan zuten boto eskubidea. Horiatik 1.283k eman zuten botoa. Abstenzioa beraz, %22koa izan zen; zehazki, 359 lagunek ez zuten botua eman. Egun berean egin ziren, baita ere, Aldundirako hauteskundeak eta zentsuan zeuden antzuolarretatik 1.279k bozkatu zuten. Aurten zentsuan 1.613 antzuolar daude.

Aurtengo udal hauteskundeetan ZUTIK eta EH alderdiek zerrenda bateratua aurkeztu dute. Gauzak horrela, orain dela lau urteko datuak begiratuta, boto kopuruan EAJ alderdiak baino boto gehiago lortuko lituzkete. Hortaz, seguruenez, bi zerrenda horien artean egongo da alkatetza. ■



Astelehenean Herri Irratian izan ziren EH, EAJ eta EAko hautagaiak.

1995	UDALA	BATZAR NAGUSIAK
EAJ	447	369
HB	324	390
ZUTIK	155	-
EA	142	204
PSE-EE	114	184
PP	-	38
IU-EB	-	32



SAN JUAN BEZPERA

Ekainaren 23an, eguaztenean, udaran sartuko gara. Antzuolan ere arbola jasoztea eta San Juan suak izango dira. Iluntzeko 20:00etan izango da eta ondoren Oinarin dantza taldeak emanaldia eskainiko du, Herriko plazan. Udalak, gainera, egun hori aukeratu du lore eta balkoi ederren saria banatzeko. Irabazleak 30.000 PTA jasoko ditu.

JUBILATUEN BAZKARIA

Uztailaren 11n egingo dute euren jaia jubilatuek. Egun horretan bazkaria izango dute Jubilatuetan. Hori dela eta, izena emateko epea ekainaren 30ean amaituko da. Bazkaria 500 PTA kostako da. Izena Jubilatuetan eman behar da.

MENDI IRTEERA

Arrola Mendizale Elkarteak Andutzero mendi irteera antolatu du ekainaren 20rako. Garaia aprobetxatuz gainera, hondartzara ere joango dira arratsalde aldera, beti eta eguraldiak laguntzen badu. Izena emateko Arrolara jo beharko da ekainaren 14an, astelehena, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara bitartean.

LANBIDE HASTAPENA


Deba Garaiko gazteentzako ikastaroak antolatu ditu Mankomunitateak. 16-20 urte bitarteko langabetuek sukaldaritza, igeltserotza, elektrizitatea, arotz-lanak, mekanika, e.a. ikasi ahal izango dituzte 1999ko irailetik 2000ko uztailera bitartean.

Eskabideak Deba Garaiko udaletxeetan aurkeztu behar dira ekainaren 18a baino lehen. Plaza mugatuak izango dira.

PEGATINA LEHIAKETA

Urtero legez, Antzuolako jaietako pegatina lehiaketarako deia egin du Idolazek. Euskara eta jaiak elkartzen dituzten esaldiak aurkeztu behar dira. Lanak udaletxera zein udal liburutegira eraman daitezke. Irabazleak 20.000 PTA jasoko ditu.

Artxibo historikoa eta Udal akordioien datu basea



XV. mendekoa da artxibo historikoan dagoen dokumenturik zaharrena.

Udalak dagoeneko informatizatu du artxiboa. Udalak 1642tik hartutako erabaki guztiak ordenatu eta katalogatu dituzte, erabilera errazteko asmoarekin. Iñigo Ramirez de Okarizek hasi zuen lana; berak, ordea, eskuz egina zuen katalogazioa eta oraintsu Gemma Navarrok osatu berri du datu basea.

Udal akordioek osatzen dute datu base horretan jaso den materiala. Guztiak 1979. urtera artekoak dira eta akordio zaharrena 1642. urtekoa da.

Datu baseari esker, errazago topatu ahal izango da edozein gairi buruz udaletxean hartutako edozein erabaki. Lau modutara aurkitu daitezke dokumentuok: liburuen arabera, aldeen arabera, egunaren arabera eta gaiaren arabera. 3.585 dokumentuk osatzen dute datu basea eta oraindik udaletxeko ordenagailuetan bakarrik dagoen arren,

laster udal liburutegian zein interneten aurkitu ahal izango da. Gero, noski, dokumentuen bila udaletxera jo beharko da.

Dagoeneko hasi dira 1980. urtetik aurrerako udal akordioak gehitzen.

ARTXIBO HISTORIKOA

Udal akordioien datu baseaz gain, artxibo historikoa ere berrituz dute. Dokumentu hauek legajoka gordeta daude, hau da, karpitetan. Karpeta bakoitzean gai beraren inguruan egon daitezkeen dokumentu guztiak daude.

Aurkitu den zaharrena 1489. urtekoa da. Han irakurri daitekeenez, gaur egun udaletxea dagoen tokian garai hartan Madalena ospitala eraikitzekotan ziren. Udal artxibo historikoa udaletxeko bigarren solairuan dago. Armairu berezi batzuetan gorde dituzte dokumentuak, gehiago hondatu ez daitezzen.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Mokatet eta tapizatuak •

GOROSTI
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutzilatuta eta barnizaketa •

Primerako liga amaiera!



Isabel Martin omendu zuten futbolariet berriz ere.

Joan zen zapatuan primeran pasa zuten herriko futbolariet Donostian. Liga amaitzeko Zubietara joan ziren herriko hiru futbol taldeetako jokalarit eta zuzendaritzakoak. Errealak entrenatzen duen

tokiko instalazioak ikusi ostean, Donostiara joan ziren; izan ere, bazkaria egin zuten hantxe 70 lagunek. Isabel Martini oparia egiteko aprobetxatu zuten gainera futbolariet eguna. Berak eramaten

dizkien tortillak eta bestelakoak direla eta, Isabelek bere "mutikoen" maitasuna bereganatzea lortu baitu. Eta futbolariet hori eskertzekotan AKERen izenean zintzilikario bat oparitu zioten.



San Juanak Uzarragan

Ekainaren 20an, domekan, ospatuko dira Uzarragan San Juan jaiak. Iaz udalkideen eta Uzarragako biztanleen arteko desafioa egon zen Uzarragako jaietan, urtero egiten den bazkariaren ostean. Jende dezente elkartu zen, gainera, eta giro aparta izan zen.



Sokatira izan zen iazko desafioetako bat.

ALKATEA EPAITUA

Joan zen eguaztenean epaitu zuten berri ere Mikel Larrea alkatea. Aurreko aldiari bezala, soldadugaiet zerrendak ez egitea leporatzen dio fiskalak, baina oraingoan 1980ko soldadugaiena. Mikel azaldu digunez, "kuri osoena da 1979ko soldadugaiet zerrendak ere ez genituela egin eta horren aurkako salaketarik ez dugula jaso". Alkatearen iritziz, "ez da zentzuzkoa horrelako salaketa bat, kontuan izanda orain dela gutxi absolutu egin nindutela 1979 soldadugaiet zerrendak ez egitearen salaketatik, baina orain berri joan behar naiz epaitegira salaketa berdinagatik".

JAIETARAKO ESKAKIZUNA

Udalak Antzuolako jaiet inguruko erakusketa antolatu nahi du jaietan. Etxean gordeta dauden jaietako egitarauak zein argazkiak udaletxera eramatea eskatu dute, ekainaren 15erako.

ANTZUOLA

Apaintekak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA


Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatut eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GAILUR

taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Kirol-zaleen jaia

Domekan izango da eskola kirolaren festa

Eskolaz kanpoko kirol saioei amaiera emateko aurten lehenengo aldiz neska-mutiko guztientzako jaia antolatu dute eskola kirolaz arduratzen direnek. Herriko ikastetxea, gurasoak eta AKE dabil-tza antolakuntzan. Zapatuan, ekainaren 13an izango da jaia.



Herri ikastetxeko hiru geletako neska-mutikoak ibili dira aurten eskola kirola egiten. Dagoeneko amaitu dute denboraldia eta eskola kirola zuzentzen ari diren arduradunek kirolari gazteen esfortzua txalotu nahian, eurentzako jaia antolatu dute. Trialsina izango da ikuskizun nagusia, baina urtetan eskola kirolaz arduratu izan den AKEko kideek diotenez "protagonista nagusixak herriko umiak izango die".

Irakasleek, gurasoek eta AKEko kideek zuzentzen dute Antzuolan egiten den eskola kirola. Irakasleak kirol ekitaldien egutegiak arduratzen dira. Zapaturu Bergarara joan behar izaten dira eta gurasoak izaten dira haurrak alde batera eta bestera daramatenak. AKEko kideek adierazi digutenez, "Antzuolako ume danak dabitx eskola kirola egiten eta gainera izena emoten daben danak etorri izan die zapaturu, kalerik egin barik. Gainera oso ondo etortzen jakue eskola kirola egittia, eta ez bakarrik kirola egittia

ona dalako, baita 12 urterekin Bergarara joan behar dielako ikastera, eta kirola egiten dabitzen bittartian jentia ezagutzen dabe eta Bergarako eskoletara joaten dienerako lagunak edukitzen ditue. Lagunak egiteko modu bat be bada".

KIROL UGARI

Saskibaloia, eskubaloia, zazpinako futbola, atletismoa eta piraguismoa ere egin dute 10, 11 eta 12 urteko haurrek. Bergarako ikastetxeetako taldeen aurka aritzen dira herriko kirolariak. "Hillabete bakoitzian kirol bana egin izan dabe, gutxi gora behera. Martxora arte futbolian, saskibaloian eta eskubaloian ibilli zien

eta udaberrian atletismuakin hasi gitan. Tartian bestelako jolasak pe egiten ditzute, pedagogia lantzeko. Maiztarian, berriz, pisinetan piraguismo egiten ibilli die". Futbola omen da kirol izarra neska-mutikoen artean, baina "saskibaloia be asko gustatzen jakue, bai neskei zein mutillei".

ZAPATUKO JAIA

Arratsaldeko 15:00etatik 20:00etara Herriko plaza itxi egingo dute. Izan ere, 17:00etan trialsin erakustaldia egongo da haurrak saritzeko. Iker Lezeta munduko trialsin txapeldunak eskainiko du erakustaldia. Zenbait kotxe eta enbor jarriko dizkiote plazan eta berak bizikletarekin duen abilezia erakutsiko du. Horrez gain, Ikerrek hamar pertsonako taldeak gaintetik pasako ditu bizikletaz, emozioa areagotzeko. Arratsalde partean haur guztiek merienda izango dute eta ondorenera. ■

Trialsin erakustaldia egingo da
17:00etan herriko plazan zapatuan



Iaz hamar neska hauek osatu zuten alebin mailako taldea.

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.



Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, itzukuak eta

bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA

☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-urreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu



DESKARGA
AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75

Kanpoko igerilekuak astelehenean zabalik

Uretara!



Astelehenean, hilak 14, udako denboraldiari hasiera emango zaio Agorrosingo igerilekuetan. Kanpoko igerilekuak San Martin jaiak bitartean zabalik izango dira, goizeko 10:00etatik gaueko 21:00ak arte. Azken egunotan igerilekuak txukuntzeko lanak burutu dira eta beraz dena prest dago. Uretara!!

Kanpoko igerilekuak zabaltzeaz bat barrukoak itxi egingo dira astelehenean eta bakarrik baimen berezia dutenek izango dute barrukoetan bainua hartzeko aukera. Kanpoko igerilekuei dagokienez, ez da aparteko lanik egin aurtengo udako denboraldiari begira, ez baita beharrezkoa izan. Filtroetan konponketa batzuk egitea nahikoa izan da dena gertu izateko. Hala ere, astelehenean piszinetara joaten direnek ura hotz samarra izango dute. Aste honetan 18°C-tan zegoen kanpoko ura eta barrukoa berriz 26-27 °C bitartean egoten da. Kanpoko piszina handia eta txikia aurreko astean

bete ziren. Handiak 1.857 m³ko kapacitatea dauka eta txikian, aldiz, 134 m³ sartzen dira. Barrukoetan tenperatura erregulatzea posible bada ere, kanpokoetan eguraldiak berak markatzen du uraren tenperatura. Hasiera batean irailaren 19ra bitartean iraungo du udako denboraldiak. Dena den, eguraldiaren arabera, lehenago edo beranduago itxi-ko lirateke kanpoko piszinak.

UDAN JENDE GEHIEN

Piszinak goizeko 10:00etan zabalduko badira ere, Agorrosingo instalakuntzak 8:00etan zabalduko dira, gimnasia joan edo korrika egitera joan nahi dute-

mentzat. Duda barik, uda izaten da piszinetan jende gehien ibiltzen den garaia. Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, iazko udan 38.000 sarreratik gora zenbatu ziren igerilekuetan. Kopuru hori karneta duen jendeari bakarrik dagokio, beraz ez dira sartzen ordainduta sartu zirenak. Uztailean izan zen jende gehien igerilekuetan, 16.768 sarrera izan zirelarik. Horrez gain, gaztetxoek 88 bono (10 egunerako baliogarriak) eta helduen 40 bono saldu ziren iazko uztailean. Sarrerarik onena, berriz, joan zen urteko uztailearen 16an izan zen; egun horretan karneta zuten 1.291 lagun joan ziren igeri-



**Jende gehien udan
ibiltzen da Agorrosingo
igerilekuetan. Iazko udan
38.000 sarreratik gora
zenbatu ziren. Sasoi
honetan karnet dezente
egin ditu Kirol Zerbitzuak**

PREZIOAK BERGARAN ETA INGURUKO HERRIETAN

BERGARA

Kanpoko eta barruko igerilekuak ditu

Egunekoa <18 urte	Egunekoa >18 urte	Urtekoa <18 urte	Urtekoa >18 urte
375	550	9.400	14.400

ARRASATE

Kanpoko eta barruko igerilekuak ditu

Egunekoa <20 urte	Egunekoa >20 urte	Urtekoa <20 urte	Urtekoa >20 urte
325	650	7.550	12.600

OÑATI

Barruko igerilekuak bakarrik ditu

Egunekoa <21 urte	Egunekoa >21 urte	Urtekoa <21 urte	Urtekoa >21 urte
350	675	5.170	13.030

EIBAR

Kanpoko eta barruko igerilekuak ditu

Egunekoa <18 urte	Egunekoa >18 urte	Urtekoa <18 urte	Urtekoa >18 urte
500	700	8.300	13.875

ELGOIBAR

Barruko igerilekuak bakarrik ditu

Egunekoa <18 urte	Egunekoa >18 urte	Urtekoa <18 urte	Urtekoa >18 urte
400	650	9.700	11.225

lekuetara. Abuztuan 10.127 sarrera izan ziren (ordainduta joan zirenak kontutan hartzeke) eta irailean 6.368. Neguko denboraldian kopuru hori askoz ere baxuagoa izaten da, 3.000-4.000 sarrera izaten baitira hilero. Bestalde, 10 bainutarako bonoak eta sarreraren salmentak nabarmen egiten du gora ekainetik irailera bitartean.

KARNETA, BONOAK ETA SARRERAK

Yosune Linazisoro Kirol Zerbitzuko zuzendariaren arabera, "igerilekuen erabiltzaile kopuruan gorakada nabaria igartzen dugu udan. Eguntan jende asko etortzen ari da karneta egitera. Orain karneta egiten dutenek urtarrilean egin zutenek beste ordaindu behar izaten dute baina badira bai, uda etorri arte, igerilekuetara joatera animatzen ez direnak. Sasoi honetan karnet dezente egiten ditugu Kirol Zerbitzuan". Prezioari dagokionez, 18 urtetik gorako kasuan karnetak 14.400 pezeta balio du eta 18 urtetik beherakoek 9.400 pezeta ordaindu behar izaten dituzte. Langabetuek eta ikasleek ere 9.400 pezetaren truke eskuratzen dute urte guztirako karneta. Karnet familiarra ateratzeko aukera ere badago eta kasu horretan ere beherapena lortzen da prezioan. Era berean, jubilatua eta elbarrientzat prezio bereziak zehaztu ditu Kirol Zerbitzuak. Eguneko sarrerak 375 pezeta balio du 18 urtetik beherako kasuan eta hortik gorakoek 550 pezeta ordaindu behar dituzte. Hamar bainuetarako bonoak 3.100 eta 5.100

pezetan saltzen dira. Bazkide kopuruari dagokionez, iazko ekainean 3.532 bazkide zituen Kirol Zerbitzuak eta aurtengo sasoi berean 3.206 lagun dira igerilekuetako bazkideak. Yosune Linazisororen ustez, kopuru horrek gora egingo du datozen egunetan eta iazko estatistikak hobetzea ere gerta liteke.

LANGILE GEHIAGO

Udan askoz jende gehiago ibiltzen denez, igerilekuetan lan egiteko errefortzuak beharrezkoak izaten dira eta aurten ere aurpegi berriak ikusi ahal izango ditugu. Instalakuntzako garbitasun lanetan eta begirale lanetan Tere Diez, Esther Familiar, Idoia Ilarduia eta Joseba Zuzaeta izango dira ekainetik irailera bitartean. Hamaken alokairuaren prezioa, egun osorako hartuz gero, 300 pezetakoa izango da. Bestela, 15:00ak arte hartzeagatik 100 pezeta eta 15:00etatik 21:00etara bitartean 200 pezeta kobratuko dituzte. Sokorrista lanetan, berriaz, Inma Beristain, Iokin Heriz, Mireia Markiegi eta David Urbina arituko dira. Goizez sokorrista bakarra izango da eta arratsalde bi lagun izango dira zaintzaile lanetan. Irune Azpeitiaren hitzetan, "sokorrismo lan gutxi egoten da. Gehienbat zauri txikiak eta horrelakoak atenditu behar izaten ditugu. Aspaldian, zorionez, gauza inportanterik ez da gertatu eta espero dugu aurten ere sustorik ez egotea. Baina udan nahikoa lan izaten dugu. Gazteei behin baino gehiagotan ohartarazi behar diegu saltoekin etabekin kontuz



Kanpoko igerilekuak irailaren erdialdera bitartean izango dira zabalik, 10:00etatik 21:00ak arte. Agorrosingo instalakuntzak, berriz, 8:00etan zabalduko dira, gimnasioa joan edo korrika egitera joan nahi dutenentzat.

“Barruko igerilekuak berrizteko premia dagoen arren, momentuz itxaron egin beharko dugu proiektu horri aurre egiteko” YOSUNE LINAZISORO, KIROL ZERBITZUKO ZUZENDARIA

ibiltzeko. Arratsaldeetan, 3retatik aurre-ra-edo piszinak jendez gainezka egoten dira eta ez da erraza izaten kontrola eramatea. Lan neketsua da”. Bestalde, Udalak Maite Guenetxeari adjudikatu zion aurten igerilekuetako taberna eta bertara hurbiltzen direnek, edariak, izozkiak, plater konbinatuak, kazueliak edo pintxoak aurkituko dituzte.


zaharrak geratu direlako. Hala ere, aukera ezberdinak aztertu diren arren (kanpoko igerilekuak neguan kubieta teleskopiko batekin estaltzea tartean) oraingoz behintzat ez dago proiektu horri aurre egiteko dirurik. Yosune Linazisororen hitzetan, “politikoez hartu

beharreko erabakia da hori eta momentuz ez dago ezer gai horrekin. Itxaron egin beharko dugu. Erabiltzaileak? Argi dago gustorago daudela kanpokoekin barruko igerilekuekin baino”. Aurten 50 milioi pezeta inguru inbertituko dira igerilekuetan. **B**

GIPUZKOAKO LEHENAK

Bergarako igerilekuak Gipuzkoako lehenetariok izan genituen 1970eko hamarkadaren hasieran. Barrukoak 1971. urtean inauguratu ziren, Luis Lascurain herriko alkatea zelarik. Gure probintzian egin ziren lehendabiziko igerileku klimatizatuak izan ziren. Handik bi urtera, 1973an, kanpokoak zabaldu ziren. Igerileku handiak 50 metroko luzera du eta Gipuzkoan ez dira horrelako asko. Hala ere, konpetizioetarako ez da gehiegi erabili, 1970eko hamarkadan uda partean egiten ziren txapelketak salbu.

Udalak aspalditik dauka barruko igerilekuak berrizteko asmoa, nahiko



Gipuzkoako Kopako finala Lagunak eta Aloñaren artean

Gaur, eguakitza, Labegaraietako kiroldegian

Bergarako Lagunak areto futboleko taldeko jubenilek Gipuzkoako Kopako finala jokatuko dute gaur, eguakitza, iluntzeko 20:30etan Aloña Mendiren aurka Labegaraietako kiroldegian.

Aitor Zabaletak eta Manu Sanchezek entrenatzen duten taldeak denboraldi ona egin du. Hala ere, ligan bosgarren sailkatu dira eta ezin izan dute liga txapelketako azken fasea jokatu. Jubenil mailan bi multzo osatu dira eta bietako lehen laurak ligako azken faserako sailkatu dira; gainontzekoek, kopa txapelketa jokatu dute eta bergararrak eta oñatiarrak iritsi dira finalera.

Gaur jokatuko den finalan Bergarako lagunak da faborito nagusia. Ligan, urtean zehar, lau bider jokatu dute elkarren kontra eta lauretan bergararrak nagusitu dira. Hala ere, oñatiarrek asko hobetu dute azken aldian eta finaleran gertatu ohi den bezala, edozer gauza gerta daiteke partidu bakarra jokatzen baita. Partidu ostean dominak banatuko zaizkie irabazleei.



Bergarako Lagunak elkarteko jubenil taldeak Aloñaren kontra jokatuko du gaur.

Bestalde, datorren urterako senior taldea atera nahi dute Bergarako Lagunak elkartekoek. Aurten jubenilen eta nesken taldeak aritu dira eta datorren urtean seniorrena atera nahi dute. Mikel Fernandezek zuzentzen duen nesken taldeak denboraldi ona egin du, kontutan izanda, kategoria bakarra egon dela eta Bergarako neskak, eurak baino zaharragoen kontra jokatu behar izan dutela. Hamargarren tokian amaitu dute liga.

LABEGARAIETAKO TXAPELDUNA

Futbitoko kontuekin jarraituz, esan dezagun joan zen zapatuan jokatu zela Labegaraietako futbito txapelketako superkopa. Errotagain eta Bar Canalejas taldeek, ligako eta kopako txapeldunek, elkarren kontra neurtu zituzten indarrak eta Bar Canalejas-ekoak nagusitu ziren, azkenean 5 eta 2 irabaziz.

Bestalde, Antolaketa Bartzordea datorren urteko txapelketa antolatzen hasia da dagoeneko eta izena emateko epea ere zabaldu du. Izena emateko azken eguna irailaren 14a izango da eta txapelketa, berriz, irailaren 25ean hasiko da. Taldearen izenarekin batera, jokalarien zerrenda eta bakoitzaren NAN zenbakia ere jarri beharko dira. Horrez gain, 22.000 pezeta ordaindu beharko da talde bakoitzeko Lagunak Elkartearen Euskadiko Kutxako kontu korrontean: 0090 03 3922-2. **B**

Aldi bi

Aldibi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra eta konejora
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**

**DENA
100etik**

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

Kirol materiala euskaraz sortzeko bekadunak aukeratu dituzte

Kirol materiala euskaraz sortzeko bekadunen izek jakitera eman dituzte aste honetan Deba Bailarako euskara eta kirol zerbitzuek. IX. edizio honetan herri kiroleko eta gimnasia erritmikoko fitxak garatuko dituzte. Herri kirolen fitxak sortzeko, Leire Canori eta Onintza Garcari eman dizkiete beka eta gimnasia erritmikokoak egiteko, Iratxe eta Gorette Aranbururi eta Imanol Epelderi.

Kirol bakoitzeko, 300.000 pezetako dirulaguntza banatuko da. Gimnasia erritmikoko fitxetan, kirolen historia, araudia, gorputz teknikak, hainbat modalitatetan erabiltzen diren aparatuen tekniken oinarriak, prestakuntza fisikoa, koreografia, fitxen edukia eta hitz tekniken hiztegia



Aurreko edizioetan, beste kirol batzuei buruzko fitxak landu eta argitaratu dira.

landu beharko dira besteak beste. Herri kirolen fitxetan, historia, oinarriko araudia, urteetan izan duen garapen didaktikoa eta herri kirolen mugimenduak: lana arrastaka egitea eskatzen duena, altxatzea, ebakitzea, garratzea eta korrika egitea.

Garatutako materiala kirol elkarte, ikastetxe eta ki-

rol heziketaz arduratzen diren teknikariei banatuko zaie. Helburua, kirola erakutsi eta egiteko garaian euskaraz mintzatzea da.

Aurreko edizioetan futbola, eskubaloia, saskibaloia, atletismoa, rugbia eta tenisari buruzko fitxak landu dira. Kirol bakoitzeko 25-30 bat fitxa argitaratu dira.

Datorren eguakitzean Bergara Hiriko finalak

Muruamendiaraz eta Iñurrategi Bergara Hiria pilota txapelketako afizionatuen mailako finalerako sailkatu ziren martitzenean, Urretabizkaia eta Errandoneari 22 eta 8 irabazi ostean. Iñurrategi ederki eutsi zion atzean eta Muruk partidu bikaina egin zuen, tanto politik eginenez. Promesa mailan, Erauskin eta Retegi sailkatu ziren martitzenean finalerako. Bestalde, eguen iluntzean jokatzekoak ziren beste finalerdiak. Promesetan, Murguruza bergararrak eta Mendiluzek Irazoki eta Tirapuren kontra neurtu behar zituzten indarrak. Bi mailerako finalak datorren eguakitzean jokatuko dira, 19:30etan.

Bestalde, herri arteko pilota txapelketako final laurdenetako itzulerako partiduak gaur, eguakitzan, jokatuko dituzte Bergarak eta Lasartek. Partiduak Bergarako frontoian jokatuko dira 19:30etatik aurrera. Joanekoan 2-1 galdu zuten bergarrek eta 11 tantutako alde aterazieten lasartearrek. Reyes Azkoitia bergararren entrenatzailea finalerdietarako sailkatzeko itxaropentsu azaldu da: "zaila izango da, baina aurrera egiten badugu, Azkoitiaren kontra neurtu beharko ditugu indarrak. Partidu oso politik izango dira, eurak baitira txapelketa irabazteko faborito nagusiak" esan digu.

AINZANE NARBAEZ/ Gimnasta

"Banaka egiteko, soka dut gustoko"

Ainzane Narbaez 13 urteko antzuolarra, 10. tokian sailkatu zen sokako ariketan Zaragozan jokatutako taldekako gimnasia erritmikoko Espainiako txapelketan. Ainzane 9 urterekin hasi zen gimnasia eta gaur egun Eibarko Ipurua taldean dihardu. 1,65 metroko garaiera eta 48 kilo.

G. Lortutako emaitzarekin pozik?

E. Bai, taldeko hiru lagun izan ginen: Ainhoa Bolinaga pilotarekin aritu zen, Maite Garcia zintarekin eta ni neu sokarekin. 11. postua eskuratu genuen eta sokako ariketan 10. geratu nintzen, 46 partaideren artean.

G. Ondo sokarekin moldatzen zara?

E. Askok gustatzen zait, banaka egiteko garbiagoa da eta ariketa polita aterazizaidan Zaragozan. "La mascara" filmeko musika erabili nuen eta ariketa alai zen. Nerbioak? Beste txapelketa guztietan urduri jarri izan naiz baina azken honetan lasai aritu nintzen. Abenduan taldekako Espainiako txapelketa izango da eta taldea politagoa da pilota. Bost laguneko taldea osatuko dugu ordurako.

G. Udan oporrak izango dituzu...



E. Ez dut uste, entrenatzen jarraitu beharko dugu. Tania izeneko errusiarra da gure entrenatzailea eta lana aginduko digu ziurrenik. Entrenamenduak dieta zaintzea baino gogorragoa dira.

G. Entrenatzaileak zer esaten dizu?

E. Ondo nabilela baina oraindik asko hobetu behar dudala.

G. Zein da zure gimnasta favoritoa?

E. Elena Ditrchenko errusiarra. Bere mailara iristea ezinezkoa ikusten dut.

Zabaletak ez zuen areriorik izan Gorlan

Gorlako Kotxe Igoeraren IX. edizioak jende asko bildu zuen domekan. Azkenean, Aitor Zabaletarena izan zen barketa bakarra irteeran eta bergararrak bere nagusitasuna azaldu zuen, ikusleen gozamenerako. Aitorrek 32 puntu eskuratu zituen Euskal Herriko Txapelketarako eta beraz Oscar Martinezekiko alde handitzea lortu zuen. Oscar Martinez bigarren postuan sailkatu zen domekan eta Lebeitik hirugarren postua lortu zuen, bi txandak burutu ondoren.

Esan bezala, eguraldia lagun, zaletu asko inguratu ziren Gorlara domekan. Motorzaleek 36 gidariak goizean zehar eskeinitako ikuskinarekin gozatu zuten. Kotxez gain, kart-ekin egin-

dako erakustaldia erabat ikusgarria gertatu zen. Bat baino gehiago harrituta geratu ziren ibilgailu txiki hauen potentziarekin. Kart gidariak euren trebetasuna erakutsi zuten eta konpetizioan ziren zenbait gidarik baino denbora hobea egin zuten. Jose Bermejok 2 minutu eta 53 segundu egin zituen.

Zabaletarekin batera, beste bi bergarar gidari izan ziren Gorlako aldapetan; Javier Bretaña sailkapeneko bederatzigarren tokian sailkatu zen eta German Fernandez 14. postuan geratu zen. Bestalde, ondoriorik gabeko bi istripu gertatu ziren entrenamenduetan eta bi txanda ofizialetan. Antolatzaileak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin.



Kanpotik etorritako eta bertako ikusle asko bildu zen joan zen domekan Gorlako igoeran.

SAILKAPEN NAGUSIA

- | | | |
|----|---------------------------------------|---------|
| 1. | Aitor Zabaleta (Lola BMW) | 2:26:49 |
| 2. | Oscar Martinez (R5 Turbo2) | 2:52:02 |
| 3. | Lebeiti (R5 Turbo2) | 2:54:08 |
| 4. | Bernardo Cardin (Lancia Delta) | 2:58:23 |
| 5. | Julio Fernandez (BMW) | 3:02:92 |

BERGARARREN SAILKAPENA

- | | | |
|-----|--|---------|
| 9. | Jabier Bretaña (Citroen Saxo VTS) | 3:04:90 |
| 14. | German Hernandez (Opel Corsa GSI) | 3:10:52 |



Zure pelikulak eta Playstation jokorik onenak alokagai eguneko 24 orduetan

6 orduko alokera	.200 pezeta
12 orduko alokera	.300 pezeta
24 orduko alokera	.350 pezeta
Egun osoa	.400 pezeta
Jokoak	.200 pta. eguneko

Bazkide egiteagatik
5.000 pta ordainduz gero
7.000ko kreditua
pelikulak zein jokoak alokatzeko!
10.000 ordainduz gero,
15.000ko kreditua!



Ibargarai 6 BERGARA. Telefonoa: 943 76 32 51

I P I N T Z A K O

futbol txapelketa



partiduak

NESKAK

Eguakitzeta 11

Kadeteak

19:00: Aldrebesak-Las 43

19:00: Azkenak-EKA

20:00: Baleike-Aupa

Nagusiak

20:00: Biko-Zutaz Pentsatzen

21:00: Elgetako taldea-Lai Lai Lai

21:00: Potzu-Onenak

MUTILAK

Astelehena 14

19:15: Ezinleike-Bildurbarek Opel/Lam

20:30: A Ze Flaxa/La Guipuzcoana-Mokolotov

Martitzena 15

19:15: VTA-Toyhu

20:30: Osintxu-Amilotx

Eguaztena 16

19:15: La Juve-Altos Pornos

20:30: Txokokuak-Arloteak

Eguena 17

19:15: Fatxurtu-Euskal Beccia

20:30: Fo Fo Fo-Matxakategi

emaitzak

MUTILAK

Euskal Beccia-VTA	5-1
Manitou-Osintxu	7-1
Black & Decker-La Juve	3-2
Gore-Game Over	3-0
Arloteak-Fatxurtu	1-0
Matxakategi-Mongatxurak	0-2
Altos Pornos-Mokolotov	4-1
Manitou-Amilotx	0-2
Euskal Beccia-Toyhu	4-1
Bildurbarek Opel Lam-Etengabe	3-1
A Ze Flaxa La Guipuzcoana-Angiozar	1-0
Osintxu-Fo Fo Fo	2-6

NESKAK

Las 43-Aupa	2-2
EKA-Aldrebesak	7-0
Azkenak-Baleike	0-2
Onenak-Elgetako taldea	4-2
Lai Lai Lai-Biko	4-2
Zutaz Pentsatzen-Pentol's Team	8-0

jokoz kanpo



Bitxor Jimenez

A ZE FLAXA
LA GUIPUZCOANA

G. Dagoeneko bi partidu jokatu dituzue. Zer moduz orain arte?

E. Biak irabazi ditugu, asko kostata izan bada ere. Altos Pornosi 2 eta 1 irabazi genion eta Angiozarri 1 eta 0.

G. Zu zeu zela zabilta?

E. Gustora nabil, orain arte gol bakarra sartu arren. Iaz berehala bota gintuzten txapelketatik eta ezin izan ginen final laurdenetara ere iritsi. Aurten, lehen fasea gainditu eta ahalik eta aurreren iristea da asmoa.

G. Zer da zuen taldearen gauzarik onena?

E. Guztiok ondo ezagutzen dugu elkar, betikoak baitihardugu jokatzeko eta hori ona da. Bestalde, atezain ona daukagu, orain dela bi urte fitxatutakoa. Gainera, ez daukagu federatutakorik.

G. Epaileekin-eta zela?

E. Ohitura txarra daukat, taldekideei sarritan oihuka egiten diet, baina epaileekin ondo portatzen saiatzen naiz. Lan ona egiten dute eta errespetatu egin behar zaie.

G. Txapelketako faboritoak?

E. Mongatxurak, Bildurbarek Opel Lam, Amilotx, Manitou..., eta baita gu geu ere. Gazteen artean, Black & Decker azpimarratuko nuke. Geure multzo berean daude eta zaila izango da euren kontrako partidua.

gora eta behera



Amilotx eta Black & Decker

Amilotx talde beteranoak eta Black & Decker gazteak euren multzoko sailkapenaren buruan ditugu. Biek oso indartsu hasi dute txapelketa, joko ona erakutsiz gainera.



Mongatxurak eta Toyhu

Talde guztiek marrazaina jarri behar dute, jokatu behar duten partiduaren aurreko edo osteko partiduan, epaileari laguntzeko. Mongatxurak eta Toyhu taldeek ez dituzte ipini eta, horregatik, Antolaketa Batzordeak bina puntu kendu dizkiote.

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Euskal Beccia	6	2	9	2
2. Arloteak	6	2	5	0
3. Fatxurtu	3	2	5	2
4. VTA	0	1	1	5
5. Txokokuak	0	1	1	5
6. Toyhu	0	2	1	8

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Amilotx	6	2	3	0
2. Mongatxurak	4	2	7	0
3. Manitou	3	2	7	3
4. Fo Fo Fo	3	2	6	7
5. Osintxu	0	2	3	13
6. Matxakategi	0	2	0	3

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Black & Decker	6	2	6	4
2. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	6	2	3	1
3. Angiozar	3	2	12	1
4. Altos Pornos	3	2	5	3
5. Mokolotov	0	2	3	7
6. La Juve	0	2	2	15

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Gore	6	2	7	1
2. Bildurbarek Opel Lam	3	1	3	1
3. Game Over	1	1	0	0
4. Ezinleike	1	1	0	0
5. Etengabe	0	2	2	7

Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. EKA	3	1	7	0
2. Baleike	3	1	2	0
3. Aupa	1	1	2	2
4. Las 43	1	1	2	2
5. Azkenak	0	1	0	2
6. Aldrebesak	0	1	0	7

Neskak, nagusiak

	P	J	GA	GK
1. Zutaz Pentsatzen	3	1	8	0
2. Lai Lai Lai	3	1	4	2
3. Onenak	3	1	4	2
4. Biko	0	1	2	4
5. Pentol's Team	0	1	2	4
6. Potzu	0	0	0	0

golegileak

MUTILAK

1. Igor Larrañaga	Gore	4 gol
2. Xabier Zangitu	Mongatxurak	3 gol
2. Igor Agirrezabal	Angiozar	3 gol

NESKAK, NAGUSIAK

1. Rachaël Olabarria	Zutaz Pentsatzen	3 gol
2. Itsaso Mendizabal	Lai Lai Lai	2 gol

NESKAK, KADETEAK

1. Amaia Osa	EKA	4 gol
--------------	-----	-------

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisua salgai Huelvan, garajearekin. 943 76 40 25.

Artekalea. 943 76 02 24.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Martoko. 943 76 37 21.

Alicanten, plaian. 10,5 milioi. 965 14 18 90.

Soraluze. Berriztua. Amueblatua. 943 75 23 98.

Bolu. 943 76 24 85.

Etxe berriztua Urteagan, 130 m². 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Pisua salgai Masterrekan. 943 76 47 13.

Antzuolan, beheko auzoan. 943 76 60 20.

Etxe berriztua Zubiaurren. 943 76 11 13.

Pisua salgai Zubiaurren. 943 76 49 30.

Bidekurutzetan 250 m²ko ganbara salgai. Deitu 943 76 21 80 telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Sald
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Sald
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Sald
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Sald
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Sald
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Sald
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Gald
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

EROSI

Bergaran etxea erosiko nuke. 617 072 595.

Toki-Eder inguruan pisua erosiko genuke. 943 76 04 88 (gauez).

ERRENTAN EMATEKO

Pisua alokairuan Simon Arrietan. 943 76 31 79.

Zarautz (abuztuan ez). 943 76 42 05.

Apartamentua Laredon. 943 76 44 34.

Pisua alokairuan 2 edo 3 lagunendako Artzamen din. 943 76 06 25.

ETXE KONPARTITUAK

Beste norbaitekin pisua konpartituko nuke irailetik aurrera. 943 76 38 76/03 53 (Shane).

2. GARAJEAK

SALDU

Ibargarai. 943 15 15 81.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Koldo Eleizalde 36an. 943 76 36 34.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

K. Gallastegi. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

Ibargarai. 943 76 44 25.

San Lorenzo. 943 76 48 09.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke. 943 76 08 53.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lokala San Pedron.

Deitu 943 76 10 39 telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Nekazal lursaila (2.000 m²koa) alokairuan hartuko nuke. 943 76 26 79.

4. LANA

ESKAINZAK

Etxe lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila eskaintzen da lanerako. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxe lanak. 943 76 46 07.

Mutila txakurrak pasiatzera ateratzeko. 943 76 29 95.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Emakumeak etxe garbitu edo zaharrak zaindu. 943 76 09 33.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxe la-




Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

Barrenkalea 35, BERGARA.
Tf. 943 76 24 89

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

IKASTARO TRINKOAK

Uztailan aukera paregabea duzu zure ingelesa hobetzeko!

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra arte
**HAURRENTZAT
GAZTEENTZAT
HELDUENTZAT**

1, 2 edo 3 ordu egunero



INFORMAZIOA:
Ibargarai 31, barruko plaza.
Tf. eta faxa 943 76 03 53.
Astelehenetik eguakitzera 10:00-12:30.

... eta 1999-2000
**IKASTURTERAKO
MATRIKULA ZABALIK**

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta

Likidazioa %30

Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

nak edo atariak garbitu.
619 52 98 04.

Emakume esperientzia-
dunak dendan lan egin-
go luke. 943 76 07 69.

Udan, umeak zaindu,
etxeak garbitu edo
tabernari lanak. 943
76 39 68 (Aitziber).

Lanak ordenadorez pa-
satzen ditut. 943 76 10 94
(arratsaldez).

ESKAERAK

Umeak zaindu eta etxe-
ko lanetarako neska behar da. 943 76 05 55
(gauetz).

Emakumea behar da
abuztuko lehen hama-
bostaldian elkarte bat
garbitzeko. 639 47 25 84.

Etxeko lanak egin eta
haurrak zaintzeko neska
euskalduna behar da.
943 76 31 11.

Etxeko lanetarako eta
ume bat zaintzeko neska
euskalduna behar da
Antzuolan. 943 76 64 24.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles filologian lizen-

tziatuak klaseak ematen ditut. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak.
943 76 33 26.

Ingeles klaseak ematen
dira. Esperientzia.
943 76 51 23.

Klase partikularrak
ematen ditut.
943 76 17 57 (Rebeka).

Ingeles klaseak.
943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak.
943 76 26 27 (Ainhoa).

OHOko klaseak.
943 76 37 94.

Hezkuntza berezian
diplomatua klaseak
ematen ditu uztailean
eta irailean.
943 76 31 79.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Citroen C25 furgoneta,
bolumen handikoa.
943 76 28 93 (gauetz).

Fiesta 1300 (SS-W) pre-
zio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra
salgai. 943 76 31 52.

Golf GTI (SS-AG) kotxea

salgai. 943 76 05 96.

Aprillia Klimber motorra
salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesela.
617 20 66 29.

Renault 11 GTL kotxea
salgai. 125.000 pezeta.
Egoera onean.
943 76 37 82.

Yamaha 600 Diversion
motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea.
943 76 29 29.

GAC motorra (50 cc.).
943 76 49 30 (Igor).

Ehiztariendako Lada Ni-
va 4x4. 680.000 pta.
943 73 15 57 (Beñat).

Suzuki GSX 750 F moto-
rra prezio onean salgai.
610 20 82 78.

Renault 19 TXE 1.7.
Aire egokitua. 250.000
pezeta. 943 76 19 56.

Volkswagen Combi fur-
goneta. Guztiz ekipatu-
ta. 943 71 49 15.

7. ANIMALIAK

SALGAI

Ardi txakurkumeak.
943 76 36 14.

OPARITU

Doberman eta boxer
arteko txakurkumeak.
649 07 97 97.

Leku itxian ohitutako
txakurra opari.
943 58 50 64.

8. DENETARIK

SALDU

Mendiko bizikleta.
943 76 10 80.

Eskopeta paralela
salgai. 943 76 37 25.

Kristalezko salmahaikiak
eta baskula salgai.
943 76 21 81.

Bigarren eskuko ordena-
gailuak. 943 76 28 68.

Sukaldeko Fagor kanpaia
salgai. 943 76 47 82.

Kotxe kapota, moisesa
eta haurrentzako aulkia.
Deitu 943 76 19 09
telefonora (gauetz).

EROSI

Kitarra elektrikoa erosi
nahi nuke. 943 76 27 85.

Bigarren eskuko botoi-
dun akordeoia.
943 76 47 48.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INSTALATZAILEA
Gasteiz. 19869/1

LH II INFORMATIKA
Bilbo. 19513/1

**MUNTATZAILE-
SOLDATZAILEA**
Bartzelona. 19980/4

**ANBULANTZIA
GIDARIA**
Gasteiz. 20057/3

**SISTEMA
TEKNIKARIAK, 2**
Bilbo. 19508/5

**INFORMATIKA
EKIPAMENDUEN
TEKNIKARIA**
Bilbo. 19648/3

BANATZAILEA
Donostia. 20060/3

**INFORMATIKA
IRAKASLEA**
Ibai ezkerrekoa.
20519/1

SARE TEKNIKARIAK
Bilbo. 20149/3

**MEKANIKARI
LAGUNTZAILEA**
Durangaldea. 20539/2

**KOMERTZIO
PROMOTOREAK, 2
(emakumea)**
Santander. 20545/1

LH II MEKANIKOA
Donostia. 20566/2

**ANALISTA
PROGRAMATZAILEA**
Bilbo. 20595/3

**INFORMATIKA
IRAKASLEA**
Zamudio. 20448/2

**BILTEGI
LAGUNTZAILE
IRAKASLEA**
Bilbo. 20496/2

**INFORMATIKA
IRAKASLEA**
Bilbo. 20504/3

**INFORMATIKA
IRAKASLEA**
Ibai ezkerrekoa.
20519/1

**Lan eskaintza hauetakoren bat
interesatzen bazaiztu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta
eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

FRANTSES IRAKASKUNTZA

**Ikastaro
trinkoak
uztailaren
5etik 23ra**

Izena emateko epea:
uztailaren 3ra arte.



Informazio gehiago:

Mizpildi 3, 1-ekerra. BERGARA.
Tf. 943 76 30 55

Orduetgia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00

BILBO garraioak

Bergara-Bilbo eguneroko zerbitzua
Partikularrendako eta industriendako

Leizariako San Lorentzo 19, 3C
Tf. 943 76 35 74. Mugikorra: 609 479 443

LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Beart-en arte gunea bi aste barru zabalduko da

Uztailaren 2an inauguratuko da Boluko egoitza arte erakusketa batekin

Uztailaren 2an inauguratuko da Bergarako artisten elkarteak (Be-art) Bolun izango duen arte gunea. Hasierako asmoa aste honetan zabaltea zen, baina lanak atzeratu egin dira eta aste pare bat beharko dute guztiz amaitzeko.

Arte gunea erakusketa batekin zabalduko da. Beart elkarteko kide direnen edo izan direnen lanak ikusi ahal izango dira, baina baita pintura, eskultura edo bestelako artelanak egiten dituzten bergararrenak ere. Egoitzaren bi solairuetako paretetan eta espazio osoan zehar jarritako kaballeteetan kokatuko dira artelanak. Beart elkarteko kideek herri osoari zabaldu nahi dizkiote atea, ahalik eta jende gehinak ezagutu dezan barrutik egoitza berria.

400 METRO KARRATU

Bergarako artistek Bolun izango duten gunek 400 metro karratu ditu, bi solairutan banatuta. Biak kontuan izanda lanerako bost gunek handi izango ditu;



Bergarako artistek Bolun izango duten arte gunean azken ikutuak ematen ari dira.

horrez gain, liburutegiarendako eta administraziorako bi gela txiki. Sarreran kristalezko atea jarriko dituzte halleran argia sar dadin.

Sarrera gunek honetan, ia zazpi metroko altuerakoa, erakusketak antolatuko dira.

Lanen aurrekontua ia 17 milioi pezetakoa da.

Etorkizunean, erakusketak, tailerak, hitzaldiak, ikastaroak edota bideo emanaldiak antolatu nahi dituzte bertan. Bazkide txartelak egingo dituzte.

Pilar Cristobalen "Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak" itzuli du Elexpuruk

Juan Martín Elexpuruk egin du Txalaparta argitaleraren "Literotura" saileko hirugarren liburuaran, Pilar Cristobalen "Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak", itzulpena. Liburuan 13 kontakizun labur biltzen dira, zein baino zein bustiago eta goriago: jaun-andereen eta bere mirabearen arteko ha-

rremanak, familia baten larritaldi xebebreak, zakila alokatu zuen bikote lesbianoaren kasua, leihotik mutil gimnasiazalea dakusan neska-gorabeherak... Narrazioak, Asisko Urmenetaren marrazkiekin jantzita datoz.

Pilar Cristobalen aurpegia oso ezaguna da, telebista programa askotan agertu

delako sexologo gisa: *Hablemos de sexo, La noche prohibida, La sonrisa del pelicano...* Bestalde, *Lib, Ser padres* edota *Tu salud* aldizkarietan ere kolaboratzen du, besteak beste. Liburua argitaratu berria da eta 1.800 pezetan eskuratu daiteke. Esan bezala, "Literotura" saileko hirugarrena da.



Mujika
goseologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

etxalar
kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

erakusketak

Javier Garciaren olioak eta Azurren argazkiak ikusgai

Bi erakusketa Kultur Etxean eta Nahikarin

Egun hauetan bi erakusketa bisitatu daitezke Bergaran. Alde batetik, Javier Garciaren pintura lanak Kultur Etxean eta, bestetik, Azurren argazkiak eta eskulanak, eta Benita Gallastegi bere amaren olioak Nahikari tabernan.

Javier Garciak oihalaren gainean margotutako 35 olio aurkezten ditu domekara arte Kultur Etxeko erakusgelan. Guztietan paisaiak ageri dira: Bergarako hainbat txoko, inguruko, kostaldeko eta Donostiako irudiak eta baita Parisekoak ere. Javier Garciak 65 urte ditu eta orain dela urte batzuk, Zerrajeran jubilatutaz zenean, ekin zion margotzeari. Bere kontura ikasitakoa da eta gaur egun ere bere etxean egiten ditu koadroak. Formato txiki eta ertaineko lanak dira Kultur Etxean dituenak.

Bestalde, Azurrek bere bigarren erakusketa antolatu du Bergaran. Iazko udazkenean Pol-Pol tabernan egin zuen moduan, orain Nahikarin erakusten dizkigu bere azken argazkiak.

Formato txikikoak dira eta marko eta guzti daude; kristala eta eskuz egingandako markoak jarri dizkie Azurrek, Euskal txokoak bildumako argazkiei. Gehienak Bergaran ateratakoak dira, baina Zugarramurdin edo Landan ateratakoak ere badira. Ilunabarrean, eguzkia izkutatzera doanean, ateratakoak, baserri edo etxeei ateratakoak..., denetakoak daude. Bestalde, Azurren argazkiekin batera, Benita Gallastegi bere amaren 4 olio ere ikusgai daude Nahikarin. Oihalaren gainean pintatutako paisaiak dira.



Azurrek Nahikari tabernan erakusten duen argazkietako bat.

salduenak / maiatza

LIBURUAK

Euskaraz

1. AGIRRE ZAHARRAREN KARTZELALDI...
Koldo Izagirre. Elkar
2. BERANDU DA GELDITZEKO
Unai Iturriaga. Susa
3. ANTZUOLAKO HIZKERA
Jone Larrañaga. Antzuolako Udala
4. EUSKAL IDAZLEEN IPUIN EROTIKOAK
Batzuk. Txalaparta
5. ZANPA EZAK SUGEA
Yasar Kemal. Txalaparta

Erdaraz

1. NOSOTRAS, QUE NO SOMOS COMO...
Lucia Etxebarria. Destino
2. EL TESTAMENTO
J. Grisham. Ediciones B
3. EL FANTASMA DE MANHATTAN
F. Forsyth. Plaza & Janes
4. LAS AFUERAS DE DIOS
Antonio Gala. Planeta
5. EL MANANTIAL DE CRISTAL
Naomi Deborah Baltuck. Maeva
Iturria: Etxepare-Bilintx eta Peñalba

DISKOAK

1. BADIRA HIRU ASTE
Mikel Urdangarin
2. MILLENIUM
Backstreet Boys
3. TIERRA DE NADIE
Hevia
4. RAIZ
Pedro Guerra
5. ASKATASUN TAUPADA
Etsaiak
6. BACK ON TOP
Van Morrison
7. BRIGADISTAK
Fermin Muguruza
Iturria: Etxepare-Bilintx

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Mandoak batetik bestera eramaten dituenak. 2. Alaikiro. Begi-distira. 3. Laur langintza. 4. Emakume izena. Bokala. Diruzko zigor. 5. Lasaitasuna. 6. Kontsonante errepikatua. Euskal sindikatua. Sufrea. Potasioa. 7. Oxigenoa. Autonomia Elkarte. Larru. 8. Malko jarria. Bokal errepikatua. 9. Gizon izena. Barreak. 10. Untzia lotu. Bokala.

Goitik behera

1. Goibeltasuna. 2. Emeak gurasoekiko. Erdi, hitz elkarketan. 3. Kolore askotako. Idor. 4. Esaten du. Hitza. Bokala. 5. Anarkista. Partitiboaren ezaugarria. 6. Baztango herria. Adarra. 7. Bokala. Serbiako hiria. Zirt-..., erabaki! 8. Zuhaiska mota. Alderdi espainiarra. 9. Hari nion, eta zuri... Gauerokoa. 10. Pluralean, fruitu mota. Betekada.

Soluzioa

9. Nizun. Lo. 10. Aranak. Oka.
 7. A. Nis. Zart. 8. Intsus. IU.
 5. Akrrata. Rik. 6. Zia. Abarra.
 3. Nabar. Agor. 4. Dio. Eiea. A.
 1. Malenkolia. 2. Alabak. Ert.
 Goitik behera
 10. Atrakatu. A.
 9. Iro. Irtiak
 7. O. AE. Azal. 8. Negarra. Oo.
 5. Naretasuna. 6. Kk. LAB. S. K.
 3. Laborantza. 4. Eba. A. Isun.
 1. Mandazaina. 2. Alaki. Niri.
 Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereizbar

Zein da 1973. urtean sortu zuten elkarte honen izena?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Leku-Berri** merenderoan izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Igor Molano**rentzat izan da: Artekale pizzeria-jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Igorri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Trikuharria, 2500-1500 K.a.** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

LEKU-BERRI MERENDEROA

Irimoegi behekoa z/g, ANTZUOLA
 Tf. 943 76 60 94

Hogetahiru urtetan Mayc enpresan lanian egon ondoren, urrian lau urte beteko d ditu Ariznoa hotelean. Beste bi lagunekin batera bertako jabea da. New Yorkera oporretara joan aurretik berarekin izan gara.

Mari Karmen Otaño

Hotel bateko gauzarik inportantiena?

Klienteak gustora egotia.

Bezeroek gehien baloratzen dabena?

Erlazioa, etxekotasuna.

Zelako bezeroak ditzuzue hotelean?

Lanera datozenak gehienak. Badira 15 urtetan etorri izan direnak.

Lan gehien, noiz?

Urte guztian antzera ibiltzen gara.

Udan turista asko etortzen da?

Ez, baina iazko abuztuan, lehen hamabostaldian, beteta izan ginuan hotela.

Hoteleko lanik gustokoena?

Jendearekin tratua.

Eta gorrotagarriena?

Ohiak egitea.

Oporretan hoteletara joaten zara?

Normalean bai.

Ze hotel ezagutzea gustatuko litzakizu?

Los Angeleseko bat. Gauak milioi erdi balio dau eta zine eta telebistako izarrak joaten ei dira.

Zer egingo dozu oporretan?

Bihar, zapatua, New Yorkera noa.

New Yorken zer da gehien erakartzen zaittuen?

Hara noan bigarren aldia da eta denetik dago han.

Bergaran, turista bati, zer erakutsiko zeunskio?

Herri barrua; Plaza, Olaso Dorrea, Arreseko balkoia...

Udan, hondartza ala pizina?

Batere ez; jendetzia ez jat gustatzen.

Keizpetan ala eguzkitan gustorago?

Udaberrian eguzkitan; udan keizpetan.

Sukaldari ona zara?

Asko hobetu dot.

Janari bat?

Pasta.

Animalia bat?

Txakurra.

Zelako musika atsegin dozu?

Lasaia, Richard Clayderman pianojolea eta horrelakoak.

Filme bat?

"Titanic".

Aktore bat?

David Duchovny, "Expediente X"ekoa.

Mania bat?

Asko izango ditudut...

Besteengan gehien apreziatzen dozuna?

Adiskidetasuna.

Zerekin jartzen zara sutan?

Gauza askorekin, egunaren arabera...

Botoa emongo dozu domekan?

Bai, korreoz.

Alkate berriari zer eskatuko zeunskio?

Botoa eskatzera etortzen dien moduan, laguntza behar daben herritarrekin akordatzeko gero. **B**



*Gozogintzan
aintzindari.*


 **Estella ortopedia** 

Jabier Estella, ortopediako teknikari tituluduna

OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

Etixerako laguntza teknikoak


- Eusteko sistemak
- Gruak
- Eskapen aurkako airezko koltxoiak
- Segurtasun izarak



RPS 421/97

Matxiategi 5. Telefonoa: 943 76 19 63

Kizkur



Ileapaindegia

Estetika

Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



BBBko hirugarren mailakoak, 1983

Ipintza institutuko beste argazki bat ekarzen dizuegu orainoan, Imanol Iriagarai apai-zak atera zuen argazki pilotik aukeratutako bat. 1983. urtean BBBko hirugarren mailan zebiltzanak dira; gehienek 33 urte dituzte gaur egun. Imanol Iriagarai, garai hartako erretratu egile ofiziala, gelaz gela ibiltzen zen ikasturte hasieran, ikasleei argazkiak ateratzen. Gelako denak arbela aurrean ipini eta "klik", betirako immortalizatzen zituen. Hona hemen, bertan agertzen direnen izenak, ezkerretik hasita.

Goiko ilaran: Jorge Gardoki, Josu Alberdi, Carlos Etxaniz, Julian Muniategiandikoetxea, Carmen Zafra, Amaia Vicente, Maria Jesus Urbina, Belen Larrion, ezezaguna, Iñazio Iri-

goien, Javi Orbea, Juan Moreno eta Roman Zezeaga.

Erdiko ilaran: Miguel Angel Alvarez (irakaslea), Iñigo Azkarate, Amaia Ansuategi, Ana Martinez, Rocio Aprell, Amaia Agirre, Arantzazu Revilla, ezezaguna, ezezaguna, Jaione Galdos eta Juan Manuel Garcia.

Beheko ilaran, jarrita: Mertxe Almeida, Clara Azkarate, Luis Ignacio Mendizabal, Antonio Astiazaran, Mari Carmen Goiti, Arantza Muñoz, Julia Moral, Belen Fernandez, Maite Muñoz, Arantzazu Aldekoa, Janet Trujillo, Maria Jesus Prieto eta ezezaguna.

Argazkia: Imanol Iriagarai

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!


San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25




Haize berriak Herritarron ordua



bozkatu



Bergara



Euskal Herritarrok



Sofa
leku



Sofa
leku



Sofa
leku



Sofa
leku

**ESKANTZA
BEREZIAK**

Sofa
leku

**HIRU JOKO
LARRUA
OIHALA
3+2**

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**



Sofa
leku

